

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko urriaren 24a • IV. urtea • 128. zenbakia • DOAN BANATZEKO



Goienka2a

Ekon taldeak agur esaten digu bederatzirte ondoren

NAIM ABU TAIR / PALESTINARRA

"Palestinako gatazka amai dadin ezinbestekoa da nazioarteko laguntza" /7

ESKUBALOIA

Aloña Mendi-Arrikruz taldeak makal hasi du denboraldia/10



XABIER URZELAI

Titin eta Olaizola Uarkapen

Goi mailako pilota Debagoienera helduko da aspaldiko partez. Izan ere, Lau t'erdiko Txapelketa-partidua jokatu dute zapatuan, Arrasateko Uarkape Udal Pilotalekuan, Titinek eta Asier Olaizolak. Orain arte hiru bider jokatu dute elkarren aurka lau t'erdian errioxarrak eta goizuetarrak, eta hiruretan nagusitu da Triziokoa. Horregatik, gogo handiz aterako da Olaizola zapatuan kantxara. Eguenean egin zuten Uarkapen bertan pilota aukeraketa.

ASTEKO GAIA: EUSKALGINTZARI ERASOA /2-3

Sekreturik ez Martin Ugalde parkean

Ehunka euskaltzalek hartu zuten parte Martin Ugalde Kultura Parkeak joan den astean egin zuen Ateak Zabalik ekitaldian. Jasan-

dako erasoen gaineretik, euskaren alde lanean jarraituko dutela esan zuten arduradunek, eta jendearen "babesa" eskatu zuten.

ATXILOKETA

Atxilotuta, Fagorren ustez lapurretan egin zuena

Ertzaintzak arrasatear bat atxilotu du, ustez Fagor Arrasate enpresan hiru ordenagailu eramangarri lapurtzeagatik. 32 urteko arrasatearra da atxilotu dutena, P.J.S.P. inizialduna. Lapurreta astelehen gauean gertatu zen, San Andres auzoan dagoen Fagor Arrasate enpresan. Lantegiko pabilioi batetik eraman zituzten hiru ordenagailuok, 5.000 eurotan baloratutakoak. /4

INGURUMENA

Aizkorri-Aratz parke natural izendatuko dute datorren urtean

Aizkorri-Aratz parke naturala sortzeko prozesua abian dago, eta 2004rako izendapena egiteko moduan egongo da. Parkeak 19.240 hektarea izango ditu Gipuzkoako eta Arabako hamaika udalerritan banatuta, eta hektarea horietako zati handiena, 9.656 hektarea, Debagoieneko lau herriri dagozkie: Aretxabaleta, 1.470; Eskoriatza, 1.994; Leintz Gatzaga, 856; eta Oñati, 5.336. /4

www.forumsport.com

UDAZKENA NEGUA 2003

Garibal Etorbidea, 2-6 ARRASATE

EURIA, HOTZA, HAIZEA... BURUAK GELDITZEA ESKATZEN DIZU; BIHOTZAK, SEGITZEA.

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

LEZE GAZTE MODA

Secundino Esnaola 13 DONOSTIA

Fraiskozuri 5 BERGARA

Olarte 5 ARRASATE

Ordu aldaketa

Neguko ordutegia estreinatuko dugu zapatuan: goizaldeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu gero!

Ateak zabalik, bat izan ezik

Omenaldia eskaini zaitzaien Martin Ugalde parkean, atxilotuei

L. KORTABARRIA / O. ELORZA

Erasoen aurka, informazioa eta ekimen berriak; hori izan da bizitako azken egun ilunei aurre egiteko euskalgintzak hartu duen norabidea. Azken berriak pozgarriak izan dira -hain zuzen ere, atxilotu zituzten bederatzita lagunak aske utzi zituzten joan den martitzenean-, baina kolpe handia izan da hau Martin Ugalde parkearendako. Orain, horri buelta ematen hasi dira.

Martin Ugalde Kultur Parkeak joan den egunean jasandako polizia operazioaren ondoren, parkearen arduradun den erakundeak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, Ateak Zabalik ekimena egin zuen atzo, eguna, Andoainen. Ekitaldi horretan, euskararen alde lan egiten duten hamaika lagunek hartu zuten parte; batzuk gonbidapenez joandakoak; baina beste asko izan ziren euren kabuz joan ziren euskaltzaleak.

“EZ DUGU EZER EZKUTATZEKO”

Oro har, ekitaldi arrakastatsua izan zen eguaztenekoa, eta esanahiz betetakoa. Kontseiluko ordezkari Koldo Castañedak honela esan zuen Arrasate Irratiari eskainitako elkarrizketa batean: “Egunotan, argudio faltsu eta maltzurrez egindako erasoen aurrean, parkeko enpresa eta elkarteek ateak zabaltzea erabaki genuen, edonork ikus zezan zeintzuk garen, zer lan egiten dugun... Ezkutatzeko ezer ez dugula adierazi nahi izan dugu”.

Eta helburua ondo baino hobeto bete zuten antolatzaileek. Han elkartutako jendetzak parkeko egoitza guztiak banan-banan bisitatu ahal izan zituen, eta enpresa edo erakunde bakoitzeko arduradun baten azalpenak entzun. Ate guztiak zabalik egon ziren, bat izan ezik: *Euskaldunon Egunkaria*-ren egoitzakoak itxita jarraitzen du, poliziak ipinitako zigilu eta guzti.

Hori izan ezik, beste egoitza guztiak bisitarien esku geratu



Martin Ugalde Kultur Parkea albiste bihurtu da egunotan.

LEIRE KORTABARRIA

ELKAR INDARTZEKO AUKERA

Martin Ugalde parkea, euskara alorreko enpresen bilgune

Gaur egun, euskararen alde lan egiten duten hainbat enpresa batu eta elkar indartzeko eta kudeatzeko erraztasunak emateko gune bihurtu da parkea. Proiektua sortu zen 1998. urtean, *Euskaldunon Egunkaria* argitalpenari eraikin egokia emateko soluzio moduan. 2002ko ekainean inauguratu zuten parkea.

HOGEI ENPRESA

Hasierako hiru erakundeei beste hainbat gehitu zaizkie

Buruntzape enpresa sortu zuten parkeko hasierako kideek. Gaur egun hogeit bat enpresa daude Martin Ugalde parkean: *Berría*, *Graficas Leitzaran*, *Abarka*, *Plazagunea*, *Aztiker soziologia gunea*, *Bertsolari aldizkaria*, *Kontseilua*, *Haizea* ingurumen ikerketagunea, *SEI* soziolinguistika institutua...

HAINBAT HELBURU

Produktzioa, informazioa, prestakuntza eta aisialdia

Martin Ugalde parkeak lau helburu betetzen ditu: industria, teknologia eta kultura arloko enpresen sorlekua da; komunikazio ekimenak betetzeko informaziogunea; barrurako eta kanporako heziketa sustatzeko prestakuntzagunea; eta aisiarekin lotutako eskaintza garatzeko leku aproposa ere.

EZAUGARRI FISIKOAK

6.000 metro koadro eraiki eta egokituko dituzte laster

Martin Ugalde parkeak hazten jarraitzen du. Izan ere, 20.000 metro koadroko orubea hartzen du, eta horietatik 6.000 eraikitzeke daude. 7.000 metro koadro daude eraikita, lehen fasea bukatzerakoan. Bestalde, hainbat erabilpenetarako 35 m²-ko lau areto ditu, 140 m²-ko bakarra osatzeko elkar daitezkeenak.

Eseri eta erlaxatu

Munduko erosoan direnez, Stressless-ko besaulkiek eta sofek erabateko eta berehalako atseden sentazioa eskaintzen dizute. Eseri eta berehala, guztiz erlaxatuta sentituko zara eta lasai-lasai egongo zara.



ERLAXA ZAITEZ, ONENAREN ESQUETAN ZAUDE

Plus Sistema™ eskusiboari esker, Stressless-ko produktuak zure gorputzera primeran egokituko dira, bai atseden aktiboko zein etzandako posizioan. Ezaugarri berezi horrek benetako atsedengune bihurtzen du Stressless.


Noche y Dia

Alcorfoaren besolan

Atseden Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ

Tel./Faxa: 945 21 42 24





Debagoieneko hainbat lursailz gain, Zegamako hainbat ere hartuko ditu parke naturalak.

ZABALIK

Aizkorri-Aratz parke natural izendatuko dute datorren urtean

Debagoieneko lau herritako lurak hartuko ditu parkeak

M.B./A.I.

Aizkorri-Aratz parke naturala sortzeko prozesua abian dago, eta 2004rako izendapena egiteko moduan egongo da. Izan ere, Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek dagoeneko esku artean dituzte txostenak, ekarpenak egiteko.

Datorren urtean beste parke natural bat izango dugu Gipuzkoan: Aizkorri-Aratz. Gipuzkoako eta Arabako lurraldeei dagokie parkea eta Jaurlaritzak dagoeneko igorri dio foru aldundi bakoitzari Baliabide Naturalen Antolamendu Plana, plan hori aztertzeko eta ekarpenak egiteko. Horixe da, hain justu, izendapenerako bigarren fasea eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Departamentuak uste du

azaroaren erdi aldera bukatuta egongo dela. Horren ondoren –hirugarren fasean– dagokien udaletara igorriko dute txostena, alegazioak egiteko, eta urte bukaera alderako fase hori ere bukatuta egotea espero dute. Hori horrela, 2004rako Aizkorri-Aratz ofizialki parke natural izendatzeko moduan egongo da Eusko Jaurlaritzan.

**Parke Naturalak
19.240 hektarea
izango ditu;
horietatik 9.656
Debagoieneko lurrei
dagozkie**

ZATI HANDIENA, DEBAGOIENA

Aizkorri-Aratz parkeak 19.240 hektarea izango ditu Gipuzkoako eta Arabako hamaika udalerriaren banatuta, eta horietako zati handiena, 9.656 hektarea, hain justu, Debagoieneko lau herriri dagozkie: Aretxabaleta, 1.470; Eskoriatza, 1.994; Leintz Gatzaga, 856; eta Oñati, 5.336.

PLANAK EKARRIKO DITUENAK

Parkearen administratzaileak eta kudeaketarako patronatu orokor bat eta Koordinazio batzordea sortuko dituzte. Bestalde, parkean dauden bordak egokitu ahal izango dira, betiere abeltzaintzarako erabiltzen badira, eta ezin izango da berririk egin. Ibilgailuen kasuan, egoera berezitan baino ezin izango dira erabili; esaterako, nekazaritza, abeltzaintza eta baso jardueretarako.

Mondragoeko gazte bat atxilotu dute, ustez Fagor Arrasaten lapurtu duena

Ertzaintzak egotzi dio Fagor Arrasaten hiru ordenagailu lapurtzea

GORKA ETXABE

Ertzaintzak arrasatear bat atxilotu du, ustez, Fagor Arrasate enpresan lapurretan egiteagatik. Hiru ordenagailu eramangarri lapurtzeagatik atxilotu dute.

Lapurreta astelehen gauean gertatu zen Fagor Arrasate enpresan. Arrasateko San Andres auzoan dago kokatuta Fagor Arrasate, eta enpresaren pabilioi batetik eramantzen zituzten ordenagailuak. Guz-

tira hiru ordenagailu eramangarri lapurtu zituzten, 5.000 eurotan baloratutakoak.

Atzo, berriz, pertsona bat Bergarako komisariara gerturatu zen, gidatzeko baimena galdu zitzaiola esanez. Ertzaintzaren eta pertsona horren arteko elkarriketan, baina, beste hainbat ebidentzia atzeman zituzten poliziak. Besteak beste, gidatzeko baimena baliogabetua zeukala orain dela hiru urtetik.

Arrazoi horrengatik autoa arakatu zioten eta miaketa horre-

tan aurkitu zuten astelehenean Fagor Arrasaten lapurtutako ordenagailu baten transformadorea, baita ordenagailua ere. Gerora, beste bi ordenagailuak ere atzeman zituzten Ertzaintzak.

Frogen ebidentziak ikusita, Ertzaintzak 32 urteko pertsona atxilotu egin zuen, P.J.S.P. inisialduna eta arrasatearra, lapurreten ustezko egile bezala. Gainera, Erki degoko poliziak jakin zuen Las Palmasko epaitegi batek arrasatear hori atxilotzeko eta kartzelaratzeko agindua emana zuela.

Arangoiti ikastolari laguntzeko hainbat ekimen antolatu dute

Nafarroa Oinez egunean galera handiak izan zituen

A.I.

Aurreko domekan galera handiak izan zituzten Nafarroa Oinez jaiko antolatzaileek, eguraldi txarraren eraginez. Horri aurre egiteko dirua batzen dihardute orain Irunberriko ikastolakoek.

Eguraldi txarraren ondorioz kalte ugari izan zituzten, eta ekitaldi ugari bertan behera laga behar izan zituzten. Domekatik bertatik, Euskal Herri osoko jende eta elkarte askoren laguntasuna jasozten dihardute Arangoiti ikastolakoek. Besteak beste, sindikatuen babesa jaso dute; ELA, LAB, CGT, EHNE, STEE-EILAS eta ESK sindikatuek jakinarazi dute langileen artean dirua batuko dutela.

Ikastolako arduradunek ez dakite oraindik zenbat diru gal-

du zuten domekan, ez eta azkeneko aste honetan zenbat jaso duten ere. Euren helburua da jasotako diruarekin ikastola eraikitzea. Diruz lagundu nahi dutenendako hainbat kontu-korronte zenbaki zabaldu dituzte; hona hemen gure inguruan erabilienetakoak diren kutxetako zenbakiak: Euskadiko Kutxan (30 35 0058 35 0580077630) eta Kutxan (2101 0381 05 0011331584).

HERRIETAKO EKIMENAK

Ibarreko herrietako hainbat euskara elkarte eta ikastola ere Irunberriko laguntzeko lanean hasi dira. Oñatiko Txantxiku ikastolak, esaterako, kontu korronte zenbakiak zabaldu ditu; Antzuolako Idolaz elkarteak, berriz, mahai bat jarriko du zapatuan, dirua batzeko. HUHEZIn ere dirua batzen dihardute ikasle eta irakasleek.



Azken agurra Karlos Agirreurretari Besaiden

RIPEko kantari Karlos Agirreurretari azken agurra egin zioten haren lagunek domekan Besaiden. Hainbat musikari ezagun –Hertzainak taldeko Josu Zabala, Etsaiak eta Txapelpunk taldekoak eta Vulpesko Mamen, besteak beste–, Iñaki Beraetxe *Goenkale* telesailako aktorea, Xabier Zubizarreta Mondragoeko alkate ohia eta herriko hainbat lagun elkartu ziren. Karlosen errautsak sakabanatu zituzten txalaparta doinuaren artean, eta amaitzeko mokadutxoak egin zuten batutakoak. /E.A.

UNED-BERGARA

Ezin baduzu egunero joan klaseetara,

eta garai batean utzitako ikasketei heldu nahi badiezu,

karrera berri bat hasteko gogoia baduzu,

hizkuntzak ikasi... edo zure prestakuntza osatu

Matrikula zaitetz!

- > 20 Karrera Unibertsitario baino gehiago
- > Ikasketa-Plan berrietara sartzeko aukera
- > Dokortetza ikasketarako, Graduondokoak, Masterrak...
- > Toretza Telematikokoak eta jarraipen presentziala

Urrutira baina etengabeko kontaktuan !!!

UNED-BERGARA KATITZE PLAZA
ENTRO ANTIKANO 46100 BERGARA

San Martin Plaza 4
20570 Bergara
Tlf: 943 769 033
info@bergara.uned.es
www.uned.es/ca-bergara

HAU DA BEHAR DUZUN UNIBERTSITATEA!

DEBAGOIENEAN LABUR

Hilabetean ia 12.000 kilo ehunki batu dituzte kaleetan ipinitako edukiontzi zurietan

Oso erantzun ona izan du ehunkiak batzeko Debagoieneko Mankomunitateak irailean abian jarri zuen zerbitzu berriak. Orain arte 11.295 kilo ehunki batu dituzte Debagoieneko zortzi herrietan ipini zituzten 13 edukiontzi zurietan. Batutako ehunkiak Olberrik Errenterian daukan sailkapen plantara eroan dituzte. Han, arropa guztiak sailkatu eta apaindu dituzte, berrerabiliak edo birziklatuak izateko. Zerbitzuaren arrakasta dela-eta, bilketaren maiztasuna bikoiztu egin dute eta orain, eguazten eta egubakoitzetan husten dituzte edukiontziak.

Astlehenean Arrasaten hil zen langilearen heriotzagatik protestatzeko bi kale bilkura

Arrasateko Makatzena auzoan lanean ziharduena astlehenean hil zen 33 urteko behargin marokoarraren heriotza salatzeke kale bilkurak egin dituzte oraingo astean sindikatuak. Bi elkarretaratze egin dituzte: Arrasateko Gipuzkoa etorbidean bata, ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuak ordezkariek; eta istripua gertatu zen tokian bertan, Makatzenan, bestea, CCOO eta UGTk. Oraingo astekoarekin, aurten Hego Euskal Herrian lan istripuz ehundik gora lagun hil dira.

Autobusak antolatu dituzte oraingo domekan Abetxukon egingo den AEK Egunera joateko

AEK Egunerako autobusa antolatu du Debagoieneko AEK-k. Domekan izango da euskaltzaleen jai hori, Abetxukon, Gasteizen. Arrasateko AEDn eta AEKn eta Bergarako Jardun eta AEKn har daitezke autobus txartelak. 8 eurotan daude salgai. Honakoa izango da ordutegia: Bergarako autobus geltokian goizeko 10:00etan eta Arrasateko autobus geltokian 10:15ean.

Euskarak udalen kudeaketan izan behar duen eragina aztertu dute Aretxabaletan

Debagoieneko udaletako 30 bat langile eta udal ordezkariek elkartu ziren martitzenean Aretxabaletako Otorlora jauregian, euskarak udalen kudeaketan izan behar duen eraginaren gainean jarduteko. Debagoieneko Mankomunitateko presidentek egindako deiari erantzunez elkartu ziren, helburu honekin: euskararen normalizazioak udalengan eta herrira begira izan behar duen papera kontuan hartzea eta udalen kudeaketaren elementu ezinbestekotzat hartzea.

Hondakinak batzeko erraustegi bakarraren alde Mankomunitatea

Diputazioak ere bakarra egin nahi du, eta berari Donostialdean

GORKA ETXABE

Azkenaldian eztabaida sortu da Gipuzkoan erraustegien kontura. Gipuzkoako Diputazioak etxean sortzen ditugun hondakinendako erraustegi bakarra nahi du herrialde osorako, baina badira gutxienez bi eskatzen dituztenak ere.

Eztabaida honetan mankomunitateek dute azken hitza. Debagoieneko Mankomunitatea erabat ados dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarrerarekin. Mankomunitateko presidente Inazio Lakuntzak egoki ikusten du Gipuzkoa osorako erraustegi bakarra egotea, herrialdean 600.000 biztanle baino ez garelako kontuan izanda.

Diputazioaren asmoen arabera, erraustegi hori Donostialdean egongo da, oraindik toki zehatza erabaki barik dagoen arren. Erraustegiaren kokapenarekin ere bat dator Debagoieneko Mankomunitatea. Arrazoikotzat jotzen du erraustegirako gunea hiriburutik gertu egotea, inguru haietan dago eta biztanle dentsitate handiena.

HIRU AUKERA

Gipuzkoako hondakinen planak hiru aukera jasotzen ditu: herrialdean erraustegi bakarra, bi erraustegi edo hiru egotea. Planaren orain arteko garapena kontuan izanda, bazirudien gutxienez bi errausteko gunek izango zituela Gipuzkoak, bata Txingu-



Etxeko hondakinak Arrasateko Akeira erroaten zituzten sasoi batean. Gaur egun ez.

dikoa, Irun, Hondarribia eta Hendaiako hondakinak jasoko zituen, eta beste bat Donostialdean.

Asmook mankomunitateen eta Aldundiko aurreko gober-

nuaren oniritzia zuten. Gobernu hori EAJk eta EAK osatzen zuten, agintaldi honetan bezala. Oraingo gobernuak, ordea, erraustegi bakarraren alde egiten du.

BI EGITEAREN ALDE

Auzi horretan guztian, Gipuzkoako mankomunitateek dute azken hitza, baina Diputazioak eman du aditzera erraustegi bakarra egiteko ez bada, finantziazioan ez duela parte hartuko. Hondarribiko, Irungo eta Hendaiako udal arduradunak, besteak beste, erabaki honen aurka azaldu dira.

Oarso aldeko hainbat udalek bi erraustegi egitea nahi dute, eta ez bakarra

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Arrasateko kontsultategia:

Zerkaosteta 17, behea

Tel.: 943 79 20 18

Donostia. Tel.: 943 30 82 08

Eibar. Tel.: 943 12 10 21

Irun. Tel.: 943 61 78 88

Talde osoa emakumearen eskura

Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia	Antonio Estomba
Menopausia	Fernando Crist bal
Endoskopia ginekologikoa	Alfredo Otorlora
Laguntza bidezko ugalketa	Jose M. G mez
	Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak	Domingo Murgiondo
Obstetrizia	Miguel Gabarain
Psikosexualitatea	Maria Jos Ruiz
Nerabazaroko ginekologia	Fatima Azkue
Hezur dentsitometria	J. Rodr guez




Policlínica Gipuzkoa

ANTZUOLA

**Idolaz-ek
Irunberriko
ikastolarendako
dirua batuko du**

Idolaz euskara elkarteak Irunberriko Arangoiti ikastolarendako dirua batuko du bihar, zapatua. Gorringo antzerki taldeak *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlan eskainiko digu Udal Pilotalekuan, 22:00etan. Ekitaldi hori aprobetxatuko du Idolaz elkarteak, eta mahaia jarriko du antzerkirako sarrean, dirua batzeko.

Gogora ezazue aurreko domekan egin zutela Nafarroa Oinez Irunberri, eta eguraldi txarraren eraginez bertan behera laga behar izan zituztela ekitaldi asko. /A.I.



LEIRE KORTABARRIA

OÑATI

Zahor txokolate enpresak bi sari jaso ditu pasa den astean

Eraginkortasunaren saria eman diote Zahor txokolate eta bonboi enpresari, estatuko iragarleek emandakoa. Estatuko ehun enpresa baino gehiagoren artean aukeratu zuten Zahor. *Eman ezazu buelta bat* lelopean iaz egindako publizitate kanpainarengatik saritu zuten Zahor. Hain zuzen ere, kanpaina hark publikoarengan izandako eragin positiboa saritzen du errekonozimendu horrek.

Bestalde, Gipuzkoako Elikagai Bankuak diploma batekin eskertu zuen Zahorren lankidetzat. Zahorrek 2.000-2.500 kilo produktu ematen dizkio hileroko Elikagai Bankuari, eta honek elikagaiok herri behartsuetara bidaltzen dituzten erakundeei ematen dizkie. Irudian, Jose Mari Laso eta Eli Ugalde marketing arduradunak. /L.K.

ARAMAIO

**Ekitaldi ugari eta
azoka ikusgarria
Erretiratuaren
Egunean**

Gaur hasiko dira Erretiratuaren Egunean ekitaldiak. Camerata Gasteiz orkestrak kontzertua emango du kultura etxean, 21:00etan. Baina bihar, zapatua, izango da egun handia. Goizean goizetik txistulariek eta trikitilariak alaituko dute eguna. Tartean, 12:00etan hildako erretiratuaren aldeko meza izango da, 13:00etan dantza saioa egingo dute eta 14:30ean ohiko bazkaria.

Eta, jakina, goiz osoan baserritarren eta artisauen azoka ikusteko aukera izango da. 20tik gora saltoki izango dira Aramaion. /U.M.

ELGETA

**Etkez etxeko
laguntzaileendako
deialdia egin du
Udalak**

Udalak etkez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzen du. Laguntzaile moduan jardun nahi dutenei jakinarazi diete Bergarako Goiz Argi enpresara jo edo telefonoz deitu behar dute (943 76 72 16) izena emateko. Etkez etxeko laguntza edo larrialdi kasuetarako zerbitzuak eskatuz aurkeztutako eskariak, Osasun eta Gizarte Ongizate batzordean eztabaidatzen dira onartu edo ez erabakitzeke. Kasu bakoitza, batzordeko kideek baino ez dute ezagutuko, bereziak direlako. /I.A.

ARRASATE

**Gehiegizko ur-kontsumoa
zigortu egingo dute
datorren urteko zergetan**

Oro har, %3,5 igoko dira Arrasateko udal ordenantza fiskalak datorren urtean. Hala onartu zuen udalbatzarra, aho batez. Hain zuzen ere, KPIren araberrako igoera izango da. Edozelan ere, salbuespenak egongo dira.

Adibidez, uraren zerga kobratzeko modua aldatuko dute. Tarifa finko bat ordaindu beharko da urzerbitzuarengatik eta beste tarifa aldakor bat kontsumitzen den ur-kopuruaren arabera. Hortaz, zenbat eta ur gehiago kontsumitu orduan eta garestiago ordaindu beharko dute. Gauzak horrela, 50 m³ arte ez da kontsumoa zigortuko. Gutxi gorabehera kopuru hori edo horitik behera kontsumitzen du familia arruntak (bi lagun baino gehiagokoak). Hori bai, 50 m³-tik gorako kontsumoa bereziki garestituko da.

Bestalde, hilerri zerbitzuan ere izango da aldaketaren bat. Ez arrasatear-

rendako; bai, ordea, kanpotarrendako. Izan ere, 2004an %20 igoko da kanpotarrendako San Kristobal udal hilerriko errausketa zerbitzua erabiltzea.

ELBARRIENDAKO HOBARIA

Ibilgailuen zerga, oro har, %5,42 gehiago ordaindu beharko da. Hori bai, %33tik gorako elbarritasuna duten gidariak ez dute ibilgailuen gaineko zerga ordaindu beharko, beti ere ibilgailua euren izenean matrikulatuta badago. Eta, bestelakoren bat aipatzearen, adibidez, abandonatuko ibilgailuak erretiratzearren tasa kobratuko dute. /U.M.

Zertzelada

Datorren urtean San Kristobal hilerriko errausketa zerbitzua erabiltzea %20 garestituko da Arrasatekoak ez diren erabiltzaileendako

BERGARA

**Eguzki bidezko energia
sortzeko instalazioa egin
dute Ipintza institutuan**

Energiaren Euskal Erakundeak eta Hezkuntza Sailak egindako hitzarmen bategatik sortu da proiektua, eta helburua da ikasleei energia berriztagarriak, eta batik bat, eguzki energia ezagutzera ematea eta horren gainean sentsibilizazioa. Asmoa da 2004rako EAeko 170 ikastetxetan ezartzea eguzki bidezko

energia sortzeko instalazioak. Bada, Ipintza institutuan jada jarri dute eta abian da. Hiru atal ditu: bategatik, plaka fotovoltaiakoak jarri dituzte teilatuan (48 plaka dira eta 5.000 W-ko potentzia); bestetik, panel informatibo bat, ikasleek instalazioaren datuak jarraitzeko; eta azkenik, programa informatikoa. /M.B.



JUAN MARI SASIGAIN

Ekoizten duten energia Iberdrolari saltzen diote Ipintza institutuan.

ARETXABALETA

**Bihar, zapatua,
jarriko dute abian
Arlutz tabernako
futbito txapelketa**

Beste behin ere, Arlutz tabernak futbito txapelketa antolatuko du. Hain justu, bihar, zapatua, jokatu dute txapelketa horretako lehenengo norgehiagoka Arlutz osteko kantxan. Aurtent bederatzita talde ibiliko dira lehian. Gehienak Aretxabaleta dute, baina badago Arrasateko bat ere. Txapelketa liga eran jokatuko dute, eta gutxienez Gabonak arte iraungo du. Tarte horretan, zapatur, goiz eta arratsaldean jokatuko dituzte partiduak. Arlutzek duela zazpi urte antolatu zuen lehen aldiz futbito txapelketa. /A. L.

ESKORITATZA

**Martitzenean eta
eguztenean itxi
egino dute
Gaztañadui kalea**

Datorren martitzenean eta eguztenean, urriak 28 eta 29, Gaztañadui kaleko 27, 29 eta 31. zenbakiak dituzten eraikinak bota egingo dituzte, erresidentzia aurretan daudenak, hain zuzen ere. Lan horiek egin bitartean eta arriskurik sor ez dadin itxi egingo dute kalea 08:00etatik 19:00etara. Hortaz, bi egun horietan ezin izango da iparraldeko sarreara erabili.

Etxebizitza horiek dauden lekuan Zubiareko labea dago. Antzinakoa izanik Udalak gordetzeko ahalegina egin du, eta dagoen lekuan utziko dute. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

**Gatzagaren eta
gatzagarren
gaineko bideoa
gertu dago**

Bosthun argazki baino gehiagorekin osatu dute Gatzagaren eta gatzagarren gaineko bideoa. Txelu Angoitia argazkilariak 3.000 argazki egin ditu eta Juan Martin Elexpuru idazleak letrak jarri dizkie Angoitia-irudiei. Beatriz Armenariz arrasatearrak musika jarri du eta Iñigo Astigarragak lana koordinatu eta bideoa bera osatu du. Bideoak herriaren oraina eta etorkizunerako asmoak jasotzen ditu. 16 minutu dituen bideoa azaroaren 8an aurkeztuko dute, 19:30ean, frontoian. /A.G.

Palestinan egoera gori-gori dagoen honetan, bertatik hainbat ordezkari etorri dira Euskal Herrira, hango bizi baldintzen eta arazoan berri ematera. Asteon Arrasaten izan dira Komite Internazionalisten eskutik, eta Naim Abu Tair doktorearekin berba egiteko aukera izan genuen. Berak azaldu digu, besteak beste, nola dauden palestinarren eta israeldarren arteko harremanak.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Nolatan etorri zarete Palestinatik Euskal Herrira?

Bilbon palestinar herriaren aldeko defentsan eta bertako okupazioaren aurka egin diren hitzaldi batzuetara gonbidatu gintuzten, eta bide batez beste toki batzuk bisitatu ditugu. Nafarroako Gobernuaren eskariz, Iruñean izan gara, Parlamentuan, Palestinak herri bezala dituen arazoan eta zailtasunen berri ematen. Bestalde, Komite Internazionalistek deituta Arrasatera etorri gara, gure herriaren nondik norakoak azaltzera hitzaldi batean.

HealthWork Committees taldeko ordezkari moduan etorri zarete. Zein da taldearen zeregina?

Health Work Committees taldea edo Osasunaren Langile Komiteen Elkarte 1985ean hainbat sendagile eta osasun adituk sortutako gobernu kanpoko erakundea da. Gure erakundeak 22 klinika ditu Gaza eta Zisjordania artean banatuta. Hasieran, elkartearen helburu nagusia palestinar guztiei osasun kontuan laguntza eskaintzea zen, arraza, sexu, erlijio edo politika kontuengatik inolako bereizketarik egin gabe. Azken hiru urte hauetan, herriaren egoera latza dela eta, batez ere larrialdiak atenditzen jardun dugu. Baina emakume, haur zein adineko pertsonendako programak ere antolatzen ditugu, eta eskolatan eta beste zentro batzuetan osasun alorrekoak ez diren gizarte zibilaren bestelako beharrei eta problemei aurre egiteko proiektuak prestatzen ere saiatzen gara.

Beraz, helburu bat baino gehiago dituzue gaur egun, ezta?

Bai, hala da. Osasun kontuak dira gure zeregin nagusia eta horren baitan honako helburu zehatzak bereiz genitzake: Palestinan osasun azpiegitura sendoa eratzeta; mediku laguntzen politika nazionala diseinatzen eta antolatzen parte hartzea; palestinar guztiei zerbitzu mediku egokiak bermatzea; gizartean baztertutako sektoreak medikuntzaren beharraz ohartaraztea; eta azkenik, Palestinan gizarte zibila eraikitzen aktiboki esku hartzea.

Nazioartean maiz entzuten den galdera da honako hau: Badago aukerarik arabiarren eta israeldarren arteko negoziatorako?

Palestinako herriak biolentziaren eta okupazioaren mamuak gainean izan arren, badugu itxaropena. Noizbait negoziaketa hori egingo dela. Baina horretarako nazioarteko laguntza ezinbestekoa dugu. Gure ustez, palestinarren eskubideak ez dira sekula beteko baldin eta nazioarteko komunitateak, eta bereziki Europak, Israeli presiorik egiten ez badiu, hark Nazio Batuek hartutako erabakiak bete ditzan.



Naim Abu Tair

HEALTH WORK COMMITTEES TALDEKO PRESIDENTEA

“Palestinako gatazka amai dadin ezinbestekoa da nazioarteko komunitatearen laguntza”

HEALTH WORK COMMITTEES ERAKUNDEA

“Gobernu kanpoko erakunde honen helburu nagusia palestinar guztiei osasun kontuan laguntzea da, arraza, sexu, erlijio edo politika bereizketarik egin barik”

PALESTINA-ISRAEL HARREMANA

“Bi herrialdeon arteko harremanak ez dira guztiz eten. Edozein motatako erakunde, alderdi edo elkarterekin negoziatzeko prest gaude”

Zein iritzi duzu Osloko Itunaren osteko gaur egungo Palestinako egoerari buruz?

Palestinarrak Osloko Ituneari konfiantza jarri genuen, baita eskari garrantzitsuenak betetzeko beste negoziaketa bat egongo zela pentsatu ere. Baina azken hiru urte hauetan, eraikinen eraispeneak, erailketek, okupazioek eta oro har biolentziak etengabe egin dute gora eta gogortu egin dira Palestinako lurretan. Espe-

ranta guztiz galdu ez badugu ere, gauzak okerragora ezin dira joan. Beraz, gure nahia nazioarteko komunitatetik arazo horiek konpontzea da, eta laguntza horren zain gaude.

Europara jo duzue Palestinari buruz hitz egitera. Baina fida zaitezke Europarekin, Israelekin dituen harremanak kontuan hartuta?

Palestinarrak laguntza ez diogu Europari bakarrik eskatzen, nazioarteko komu-

nitate osoari baizik. Gure eskaria zera da: Palestinan gertatzen ari dena ikusita gainerako herrialdeek dagozkien ardurak har ditzatela. Horretarako, Nazio Batuek hartutako erabakiak bete beharko lirateke, ez batzuei dagozkienak bai eta besteak ez, guztienak baizik.

Palestinaren eta Israelen arteko balizko gailur edo goi bilera baten aurrean zein litzateke zuen jarrera?

Palestinarraren eta israeldarren arteko harremanak ez dira guztiz eten. Gertukoagotzat dauzkagu herri palestinarren berezko eskubideak onartzen dituztenak. Hala ere, edozein motatako erakunde, alderdi edo elkarterekin negoziatzeko eta hitz egiteko prest gaude, betiere, justizia alorrean dagozkien ematen diguten neurrian. Alderantziz, gure beharrak aintzatzat hartzen dituztenekin ezin dugu akordiorik egin.

Osloko Itunarekin hasitako bake prozesua amaitu zen. Orain bide berririk ireki duzue?

Bukatu zen, bai, lurpean dagoela esan genezake. Baina bide berririk ez da zabaldu. Israeldarrek Osloko akordio guztiak bertan behera utzi zituzten herrialde autonomo guztiak okupatzean. Beraz, oso zaila da beste bide bati ekitea Oslon hartutako erabakiak bete ezean. Gainera, ondoren negoziaketa egon beharko litzateke arazo nagusien aurrean: Estatu palestinarren sorrera, errefuxiatuen estatutua, Jerusalem hiriburua izatea...

Palestinako intifadak oso sonatuak izan dira. Bi intifaden artean zein ezberdintasun dago?

Lehenengo, herri palestinarren eztanda izan zen, soldaduen aurka egindako aurrez aurreko borroka. Bigarrenengoan berez armarik ez zegoen, baina Sharonen bisitaren aurrean zenbait manifestazio bakezaleri armekin erantzun zieten eta bi egunean 24 lagun hil. Hori ikusita, Palestinako polizia bere herria babesten saiatu zen, baina israeldarrek botere armamentistiko guztia erabili zuten. Beraz, bigarren intifada gogorragoa eta krudelagoa dela esan ohi da. Bien arteko aldea izugarria da.

Zuk esana da intifadek gora edo behera egin arren herri palestinarrek bere horretan iraungo duela.

Palestinarrak euren estatua lortzeko arazoak izan arren eta israeldarrek erresistentzia indarrak jartzen badituzte ere, hori ez da nahikoa. Erresistentzia armatua ez badago ere, zibikoki aurre egingo diegu.

Azken egunotako gertakariak kontuan hartuta, nolako etorkizun ikusten diozu Palestinari?

Sarri askotan tunelaren amaieran argi bat ikusten dela esaten den arren, gure kasuan ez da horrela gertatzen, benetan beltz ikusten dugu eta etorkizuna. Edozelan ere, esperantzarik ez dugu galdu eta uste dugu egunen batean akordioa lortuko dugula. Noizbait utzi beharko digutela gure nahiak eta eskubideak behar bezala betetzen. Horretarako, lehenago edo geroago nazioarteko komunitatea bere lozorrotik esnatuko den eta Israeli gatazkak ebazteko prozedurak betearazten lagunduko digun ustea daukagu. 53 urteren ostean, palestinarrok borrokara ohituta gaude, eta bide beretik jarraituko dugu eskatzen duguna lortu artean. Gure etorkizuna, beraz, gaudenetan jarraitzea edo mahai batean hitz egin eta negoziatzera jartzea da.

Beraz, zein da oro har euskaldunoi eta debagoiendarroi palestinarrok eman nahi diguzuen mezu nagusia?

Okupazioa eta herri palestinarren sufrimendua desagerrarazten lagun diezaguten eskatu nahi dizuegu. Baita gure eskubideak defenda ditzatela ere.

Zabalik

EDORTA
MENDIETA

Eutsi goiari!

Zer egin ote dugu horren gaizki, jainkoak ere gure aurka egon daitezen?

Seguru asko hori zen domeka goizean euskaltzale askok buruan zerabilten galdera.

Aspaldian euskararen inguruan, eta euskal kulturaren inguruan oro har, istilu eta zalaparta ugari dabil. Eta hori ez da batere ona euskararentzat. Gizarteak, ordea, erakutsi du badakiela berea sentitzen duena aldarrikatu eta defendatzen. Hamaika aldiz, eskatu zaion guztietan, hor izan da euskararen alde egiteko. Joko politikoen gainetik bere identitate ikurrak defendatzen, alde bateko eta besteko erasoei aurre eginez. Urtero lau-pabost aldiz izaten dugu horren adibide ederra.

Azkenak joan den domekan izan behar zuen, Irunberri. Bertako ikastolako irakasle, ikasle eta gurasoek urtebete luze eman zuten Nafarroako euskal festa handia antolatzen, baina ordu batzuk nahiko izan ziren dena hankaz gora jartzeko. Nafarroako gobernuaren politika traketsa nahikoa traba ez balitz bezala!

Desastrearen oihartzunak errepidean harrapatu zituen asko eta asko. Beste pilo bat abiatzeko prest. Guztiek buelta erdi eman behar izan zuten. Ez zen festarik izan eta desanimua zen nagusi. Baina egoerari buelta eman beharra dago animuak goian jarraitu dezan. Irunberriko ikastolaren proiektuak mahai gainean jarraitzen du eta horrek guztion laguntza eskatzen du.

Joan zinetenok, bidean buelta eman behar izan zenutenok, joateko asmorik ez zenutenok..., guztiok egin dezakegu oraindik Irunberrikoen alde. Horretarako banketxeetan kontuak zabalik daude gure ekarpenen zain. Beti bezala, bakoitzak ahal duenaren neurrian. Eta badakit oraingoan ere ez dugula hutsik egingo.

Gutunak

Ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefona: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com



Oztopo guztien gainetik Euskal Herria euskaldundu

Eusko Jaurlaritzak eginiko ikerketa soziolinguistikoaren emaitzek ez dute zer esan askorik eman. Zergatik ote? Euskal herritarrok lasai egon behar al dugu? Soilik euskara baztertua eta hizkuntza eskubideak ukatuak, Nafarroan, Zuberoan Behe Nafarroan eta Lapurdin al dira? Norberaren "etxean" ez ote da arazorik, oztoporik?

Euskaldunok ezin gaitezke euskaraz bizi Euskal Herrian, ez eta esan euskararen etorkizuna ziurtatua dugunik ere.

Lehenik, Euskal Herrian euskararentzako bost egoera juridiko izateak, hizkuntza eskubideek jasaten duten errealtate zatikatuaren erakusle, eta euskarak lege bakar bat ez edukitzearen oinarria dira. Bai eta euskararentzat lehen muga ere.

Bigarrenik, azken 25 urteetan euskarak Euskal Herrian izan dituen bilakaera ezberdinak zatiketaren ondorio zuzenak dira. Euskararen ezagutza ziurtatu eta erabilera lehenetsiko zuen hizkuntza politika garatzera jo ordez, "gizarte elebidun" eta, egun, "eleanitz" aldarrikatzen duen hizkuntza politika antzua garatu da; Hezkuntza ereduari apli-

kazioa, helduen alfabetatze eta euskalduntzearen gainbehera, erdarazko hedabideei mugarik jartze eza, Administrazioan funtzio publikoa burutzeko euskararen derrigortasun eza, euskararen erabilerearen jaitsiera... Dena esan eta euskararen normalizazioan deus egiten ez duen politika oztopatzailea.

Azkenik Estatu espainolak, PP eta UPN-ren bitartez, euskararen (beraz herritarren) aurka abian jarritako ofentsibaren aurrean lege babes gabe aurkitzen gara. Aitzitik, beraiek dira euskara erasotzeko legeak egin eta aldatzen dituztenak.

Azterketa soziolinguistikoak besterik erakutsi nahi bazuen ere, alarma gorria aspaldi piztua da. Euskarak eta hizkuntza eskubideek bizi duten egoera zatikatua, zapaldua, gutxiagotuari aurre egiteko pausu berriak behar dira. Bada Euskal Herria euskalduntzeko garaia. Euskara heriotza goxora baino ez daraman, "Herri eleantzen" aldeko, hizkuntza politika iruzurtiari bidea amaitu baitzaio. Hots, euskarari ezarritako mugara iritsi gara.

Mugak hautsi. Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Zuberoa, Behe Nafarroa eta Lapurdiko herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituen euskararen lege berria beharrezkoa da. Ofizialtasun erreale eta osoa.

Oztopoak gainditu. Euskara gizarte funtzio guztietan (sozialean, juridikoan, politikoan...) bermatuko eta lehenetsiko duen hizkuntza politika garatuz, normalkuntza plan orokor eta nazionala gauzatzera jo behar dugu.

Erasoei aurre egin. Estatu espainol zein frantsesetik, Osasun zein Justizia administrazioan, herriko lanbide ikastetxean, edo euskaraz bizitzea ukatzen diguten eraso orori erantzun behar diogu. Manifestatzen, erreklamazio orriak betetzen edo ukazioaren aurrean gure jarrera azaltzen.

Horregatik Debagoieneko EHEk "Ezabaketa egunean" Arrasaten arratsaldeko 19:00, Seber Altuben hasita, egingo den manifestaziorako deia luzatu eta bertara etortzeko gonbitea luzatzen dizuegu.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Debagoiena

Editorialak

Oinarririk gabeko ekinbideak, baina larriak

Oinarririk gabeko ekinbideak izan arren, Del Olmok hari solte asko utzi ditu, eta horiei edozein unetan hel diezake. Horregatik, euskalgintzari loturiko enpresa orok arriskuan segitzen du.

Berria. 2003/10/22

Desproporzio estrategikoa

Espainiako gobernuak presidentek eta magistratu batzuek fijasio obsesiboa dute euskal kulturaren eta euskararen aurka. Izan ere, berehala sartzen dituzte eurek deritzen ETaren entramatuan. Zentzugarria judizialak justifikatu egiten dituzte, eta ematen du horiek guztiak Aznarren estrategia zentzugabearen -Bush kopiatua- barne daudela, terrorismoaren kontrako eraso prebentiboen barne, alegia.

Deia. 2003/10/22


Boterea eta inpunitatea erakutsi nahia

Lan garrantzitsua geratzen da egiteko: Madrilek ematen dituen atzaparkadak denuntziatuz, "inpotenziaren gurrupiletik" aterako gaituen eta beharrezko pausoak ematera eramango gaituen akordio estrategikoa egitera. "Estatuaren erasoari aurre egingo dion ekintza-unitatea antolatu behar da". Ez dugu geldirik geratu behar, hurrengo eraso noiz etorriko den zain.

Gara. 2003/10/22

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martínez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Gazte ikastaroak Arrasaten

Arratiako jotak

Euskal dantzak

Anima zaitez!

- Lore Gazteak taldearekin elkarlanean
- 10 urtetik gorakoendako
- Azaroak 7 - abenduak 19
- Ostiraletan, 19:00-20:30
- Matrikula: 9 €



Irrati esataritza

- Arrasate Irratian
- Azaroak 8 – abenduak 20
- Larunbat goizetan, 11:00 – 13:30
- Matrikula: : 30 € / 15 € ikasle eta langabeek

Antzerki mugimendua


- Olatz Pagaldai eta Jon Zubiaga
- Azaroak 17 – urtarrilak 26
- Astelehenetan, 18:30-20:30
- Gazteluondo ikastolako aretoan

INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA: GAZTE BULEGOAN • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■



OINEZ 2003

HARRIZ HERRI, IRUNBERRI

**Ikastola berria eraikitzeko
zure laguntza behar dugu**

Caja Laboral-Euskadiko Kutxa: 3035 0058 35 0580077630
Caja Rural de Navarra: 3008 0042 51 1203795925
Caja Navarra-Nafarroako Kutxa: 2054 0041 86 9134923815
Santander Central Hispano: 0049 2572 24 2514210130
Kutxa: 2101 0381 05 0011331584

Aloña eskubaloitza ez dabil ondo

Aloña Mendi-Arrikruz Kobak taldea sailkapeneko azken postuetan dago oraindik

IRATI AGIRREAZALDEGI

Oñatiko Aloña Mendi-Arrikruz eskubaloitza maila nazionalan diharduen ibarreko talde bakarra da. Denboraldi honetan lau partidu jokatu ditu eta alde txikiarekin bada ere, hiru galdu egin ditu. Sailkapenean 11. dago taldea, jaitsiera postuetatik gertu.

Aurtengo denboraldian, eskubaloian, maila nazionalan diharduen Debagoieneko talde bakarra Aloña Mendi-Arrikruz Kobak talde oñatiarra da.

Denboraldia hasi zutenetik lau partidu jokatu dituzte: bi etxean eta beste bi kanpoan. Eta horietatik bakarra irabazi dute. Horrela, txantxikuarrak sailkapenean hamaikagarren tokian daude, bi punturekin.

Azken partidua Maristen aurka galdu egin zuten, 24-22. Zaragozako kantxan Arrikruz taldeak irabazteko zuen aukerari ihes egiten utzi zion. Atsedendian 9-13 ziren aurretik oñatiarrak, baina etxekoan erreazioa erabakigarria izan zen bigarren zatian, eta markagailuari buelta eman zioten.

Denboraldi honetan aurrez beste bi partidu jokatu dituzte etxean eta bat kanpoan. Galdu-tako bi partiduetan ere alde txikia atera diete aurkariek Arrikruz taldekoiei. Huescako taldea, esate baterako, lehenengo bien artean sailkatu eta mailaz igotzeko favoritoetarikoa bat da, eta gol bakarreko aldearekin irabazi zuten oñatiarrei.



KONTZEJUPETIK

Oñatiarrek denboraldi honetan jokatuak lau partiduetatik hiru galdu egin dituzte, baina ilusioz dihardute.

AURKARIAK

Txus Aranburu Arrikruz taldeko entrenatzaileak zera esan digu: "Partidu guztietan 5-10 minutu txar izaten ditugu eta gainerako taldeek aprobetxatu egiten dute gure makalaldia gol batzuk sartu eta aurretik jartzeko Egindako jokoarekin gustura gaude, baina erregulartasuna falta zaigu puntuak eskuratzeko".

Horrela, Hondarribiaren kontra irabazi egin dute eta Huescaren, Urdanetaren eta Zaragozaren kontra, berriz, galdu.

Aranbururi maila nazionalan dagoen mailari buruz galde-tuta, "liga gogorragoa" dela erantzun digu. "Bost talde berri daude ligan eta horietatik hiru aurrez goiko mailetan jardundakoak.

HELBURUAK

Aurtengo denboraldia aurrera doa, beraz, eta gol tarte txikiarekin bada ere hiru partidu galdu dituzte Oñatiko jokalariek. Hori dela eta, ez dute sailkapenean gora egiteko behar adina puntu pilatu txantxikuarrak.

Hala ere, jokoarekin gustura daudenez, emaitzetan falta zaiena lortzeko ilusioz jarraitzea da taldekideen helburua, Txus Aranburu entrenatzailearen esanetan.

"Puntuak ahalik eta azkarren lortu nahi ditugu. Bestela, taldekideak morala galtzen dute eta horrela jokatzeko ez da egokia. Jokoa eta emaitzak bateratzea eta erregulartasunez jardutea da gure helburu nagusia", esan digu Aranburuk. Maila nazionalari eusteko, beraz, gogor saiatuko dira Arrikruz taldekoak.



Mendiko bizikletan 210 lagun Eskoriatzan

Joan zen domekan mendiko bizikleta ibilaldia izan zen Eskoriatzan. Goizeko 09:30ean 210 txirrindulari abiatu ziren irteera postetik eta lehenengoak bueltatzerako 12:00ak inguru baziren. Ibilaldian geldialdia egin zuten Gatzagainen ipinitako postuan; bertan, indarberitzeko jatekoa eman zieten. Ibarreko kirolariek ez ezik kanpotik etorritakoek ere hartu zuten parte proban. Lehena lezoarra izan zen, Urko Munduate. Bukaeran opariak banatu zizkieten partaideei.

Kirolabur

PILOTA/ARRASATE

Pilota jaialdia izango da bihar, zapatua, arratsaldeko 17:00etan, Arrasateko Uarkape Udal Pilotalekuan. Lau t'erdiko Txapelketako partidua izango da lehenengoa eta bertan Titin III.ak Olaizola I.aren aurka neurtuko ditu indarrak. Horien ostean binakako bi partidu izango dira jokoan: Arbizuk eta Armendarizek Saralegiren eta Pascualen aurka jardungo dute eta azken neurtetan, berriz, Azpirozek eta Pinedok Leizaren eta Beginoren kontra.

FRONTENISA/OÑATI

Oñatiko Zubikoa kiroldegian frontenis txapelketa jokatu da azaroaren 1etik aurrera. Izena eman nahi duten jokalariek urriaren 28a baino lehen kiroldegira jo beharko dute. Bazkideek bikoteko 24 euro ordainduko dituzte eta gainerakoek, 30 euro. Txapelketako lehenengo fasea liga erara jokatuko da eta bigarrena, berriz, kanporaketa bidez. Bikote irabazleak kirol materiala eta trofeoa jasoko ditu sarritzat. Oñatiko txapelketa Debagoieneko zirkuituan sartuta dago.

ATLETISMOA/DEBAGOIENA

Iratxe Aranburu Bergarako Udaleko kirol teknikari zarauztarrak Donostiako 15 kilometroko herri lasterketan errekorra ondu zuen domekan, proba 53 minutu eta 49 segundoan amaituta. Arkaitz Letamendi oñatiarra hirugarren izan zen mutiletan Donostian. Bestalde, Donibane Lohizune eta Hondarribia arteko maratoni erdian oñatiarrek fin ibili ziren: Ritzar Fernandez hirugarren izan zen mutiletan eta Estela Biain, berriz, nesketan.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Zazpigarren jardunaldiaren ostean, Preferenteko ibarreko taldeek asteburu honetan hainbat norgehiagoka izango dituzte. Bergara sailkapenean bigarren tokian dago, Mondra hirugarrenean, Aloña Mendi zortzigarren lekuan eta hemeretzigarrenean, berriz, Aretxabaleta. Zapatuan goiztiarrenak Aretxabaletakoak izango dira Altamirako zelaian Ordiziaren kontra jokatuko dute, 16:00etan. Mondrak eta Bergarak etxean izango dute hitzordua, 16:30ean, Elgoibarren eta Real Unionen aurka hurrenez hurren. Azkenik, oñatiarrek Azkoagainen jardungo dute domekan, 15:45ean, Berioren aurka.

Hemendik aurrera, dena beste kolore batez ikusiko duzu...

Podiuma

Estela Biain | ATLETA |

IRATI AGIRREAZALDEGI

Herri probetan parte hartzen du Estela Biain Oñatiarrak. Errepidean zein mendian lasterka ibilitakoa, joan zen asteburuan Donibane Lohizune eta Hondarribia arteko lasterketan hirugarren izan zen. Entrenamendura irten aurretik egin dugu berba Estelarekin.

Nola hasi zinen antxintxika?

Ritxar Fernandez mutil-laguna korrikalaria da eta berak parte hartzen zuen probetara joaten nintzen, ikusle modura. Gero, ni hasi nintzen antxintxika, baina oso poliki. Egun batean pentsatu nuen: zergatik nik ez parte hartu? Horrela ekin nion eta gaur arte; orain, gero eta gehiago ibiltzen naiz.

Joan zen asteburuan Donibane Lohizune-Hondarribia lasterketa podiumean amaitu zenuen. Nolako proba izan zen?

Iaz hartu nuen parte proba horretan lehen aldiz eta haize zakarra izan zenez gogorra egin zitzaidan. Gainera, aldapa asko daude ibilbidean. Oraingoan euria egin du, baina haize zakarrik ibili ez denez eta gainera hirugarren amaitu dudanez, gustura geratu naiz. Horrelako probak ez dira markak ontzeko izaten, eta ni ere ez naiz horretara joaten. Beraz, ongi bukatuz gero pozik egoteko modukoa da.

Hau ez da aurreko postuetan amaitu duzun lehen lasterketa, ezta?

Uztailean Galarlaizko mendi maratokia irabazi nuen eta beste hainbat herri probatan bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu izan naiz. Federatuta ez nagoenez, herri mailako probetan ibiltzen naiz.

Errepidean ez ezik, mendian ere ibiltzen zara, beraz.

Probatzarren joan nintzen lehen aldiz eta egin ditudan mendiko bi lasterketan lehena izan naiz: Kantabrian eta Galarlaizen. Ez dut entrenamendurik egin mendian, baina pistetan aldapan gora ibili izan naiz. Errepidean eta mendian ibiltzea ezberdinak dira oso. Bakoitzak bere momentua eta grazia ditu. Bi proba motak dira errepikatuko modukoak korrika egitea gustuko izanez gero.

Zein da sekula egin duzun proba gogorrena?

Beharbada egin nuen lehen maratokia. Hala ere, oraindik ez dut inoiz proba bat benetan leher-tuta amaitu, nekatuta bai baina



LUKENE IGARTUA

Estela Biain korrikalari oñatiarra herri probetan ibiltzen da.

“Mendi maratobietara probatzearren joan naiz, eta egindako biak irabazi egin ditudanez, agian noizbait berriro egingo ditut”

“Nire burua korrikalari on modura ez daukadan arren, antxintxika ongi jarduteko konstantzia eta diziplina bezalakorik ez dago”

ez neka-neka eginda. Maratoietan batzuek diote 35 kilometrora iristean horma moduko bat izaten dela, baina niri ez zait inoiz gertatu. Ondo entrenatzea, erritmo egokian joatea eta nork bere burua kontrolatzea da kontua.

Korrikalari on batek zein ezaugarri behar ditu?

Nik ez daukat nire burua korrikalari on modura, baina ongi jarduteko konstantzia eta diziplina bezalakorik ez dago. Behin hasiz gero euri zein bero gogorik ez izanda ere entrenatu egin behar da. Entrenamendua beharrezkoa da. Era berean, gaitasunak ere lagun dezake.

Herri lasterketa asko izango da jokoan aurki. Horietara joateko asmorik baduzu?

Azken bost aste hauetan hiru karreratan hartu dut parte. Behobia-Donostia ere laster da eta hara joango naiz seguru aski. Gero, beharbada maratoi erdiren baten izango naiz.

Zein da zure hurrengo erronka?

Ni herri mailan ibiltzen naizen aldetik, karreretara parte hartzera eta ongi pasatzera joaten naiz, beste asmo berezirik gabe. Erronka bakarra maratoi erdiko marka jaitea izaten da, baina postuak ez dit axola.

Xabier Ubera Irlandako ‘handball’ txapelketan

Elgetarra Euskadiko ordezkarietako bat da

I.A.

Xabier Ubera amateur mailako pilotari elgetarrak Irlandan dihardu munduko *handball* txapelketa jokatzeko. Euskadiko Federaziotik sei ordezkari joan dira Dublinera, eta pilotan jokatzeko gainera, euren izena nazioartean ezagun egiteko aukera ere eduki dute.

Euskadiko Pilota Federazioak, nazioartean izena lortzeko asmoz, bidean pauso berri bat eman du eta Dublinen parte hartzen ari da munduko *handball* (pilota irlandarra) txapelketan. Amateur mailako sei pilotari euskaldunek jokatzeko dihardute txapelketan eta tartean da Xabier Ubera jokalaririk elgetarra ere.

Ubera II. arekin batera Gariquitoiz Erroizenea, Mikel Gonzalez, Iker Etxebarria, Ander Martin eta Aitor Erauskinek jardun dute Euskadiko kamiseta defendatzen.

Guztira, 1.500 pilotari dabil-tza txapelketa eta Euskadiko Federazioak gain, beste zortzi herrialdek bidali dituzte ordezkariak Dublinera: Irlandak, Estatu Batuek, Kanadak, Ingalaterrak, Australiak, Japoniak, Gales eta Belgikak.

BI MODALITATE

Txapelketak bi modalitate ditu. Batetik, *four walls* deitutakoa, lau hormako kantxa itxian jokatzen dena, squasheko frontoiaren antzerakoa, Bertan, gomazko pilota astuna erabiltzen dute pilotariek. Bestetik, 5 metro luze eta 6,5

metro zabal dituen frontoi librean gomazko pilota arinarekin jokatzen den *one wall* modalitatea dago. Xabier Uberak bakar-bakar zein bikotekidearekin jardun du txapelketan, betiere gorengo mailan, Irlandako pilotari profesionalen aurka.

Txapelketarako, hango pilotalekuen antzerako ezaugarriak dituzten frontoietan egin dituzte entrenamendu saioak pilotari euskaldunek azken sei hilabete hauetan.

SELEKZIOAREN EMAITZA ONAK

Selekzioak txapelketako lehen txanpan emaitza onak lortzen dihardu. Ander Martinek eta Mikel Gonzalezek osatutako bikoteak urrezko domina eskuratu zuten *one wall* modalitatean. *Four walls* modalitatean, berriz, Iker Etxebarria ere urrezko dominaren jabe egin zen.

Xabier Uberak bakar-bakar ez du zorterik izan txapelketan. Ameriketako Estatu Batuetako David Rojasen aurka galdu egin zuen (15-5 eta 15-5). Nueva Yorkeko jokalaria hiru aldiz munduko txapelketa izana da goi mailan. Cunningham irlandarraren kontra ere ez zen fin ibili elgetarra, 6-21 eta 8-21 galdu zuen-eta.

Erroizenearekin bikotea osatuz, ordea, Lenoir anaia amerikarren kontra 21-3 eta 21-4 irabazi zituzten norgehiagokak.

Txapelketa datorren domekan, hilaren 26an, amaituko da eta baliteke pilotari euskaldunek orain arteko gain beste dominaren bat eskuratzea.



GOIENKARIA

Xabi Uberak aurten hartu du parte lehen aldiz *handball* txapelketa baten.



Vitoria-Gasteizko
kalerik
komertzialena


el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz



BRICOCENTRO

Zure brikolaje denda

Uribarri auzoa B2 - S3 ARRASATE ORDUTEGIA: 10:00 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Zapatu arratsaldeetan irekita



Eskaintza!

PARKET FLOTATZAILEAK
Haritz eta pago koloreak

Kolarik gabeko lock sistema **10,80€/m²**
Kola sistemarekin **8,90€/m²**

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko urriaren 24a

Kultura
eta
aisialdia



Urriaren
24tik 31ra



EKON: AZKEN KONTZERTUA ZAPATUAN

Bederatzi urteko ibilbidea, hiru disko, hamaika zuzeneko emanaldi... Horiek dira Arrasateko Ekon taldeak eman eta jaso dituenak. Zifra horiek adierazten dute Ekon-en ibilbidearen alde onena: kontzertuetako zirrara, euren izenarekin bat zetozen muntaia ikusgarriak, jendearen harrera ona; batez ere Bizkaian eta Nafarroan, taldekoek dioskuten moduan... Baina alde ez hain onak ere egon dira, taldean nekea eta aldaketarako gogoia ekarri dutenak: taldekide aldaketak, beste gauza batzuk egiteko gogoia, edo nekea eta atsedean hartzeko unea.

Ekon taldeak banantzea erabaki du, eta bihar, zapatua, egingo du azken emanaldia, Arrasaten.

LAGUNEKIN ELKARRETARATZEA

“Orain dela hilabete askotatik geneukan hartuta erabakia, baina orain zen aditzera emateko momentu onena”, diosku Juan Sangre Ekon-eko kide eta bozeramaileak. “Disko bat atera eta beronen bira egin ondoren, atsedean hartu eta erabakiak hartzeko tarte hartzen genuen; eta oraingoan argi geneukan uztea zela onena”, gaineratzen du. Ez da kideen artean arazorik egon; berez etorritako ondorio bat izan da, Ekon-ekoek esaten dutenez: “Kide batzuek atsedean hartu gura zuten; beste batzuek proiektu berriak jorratu gura zituzten... Bestalde, bederatzi lagun elkartzea gero eta zailago egiten zitzaigun”.

Biharko emanaldia izango da, hortaz, Ekon-en azkena. Pasa den aste osoan lanpetuta ibili dira kontzertu hori prestatzen, eta badakite oso berezia izango dela, batez ere Basaurin eman behar zuten kontzertua bertan behera utzi behar izan eta gero. Elkarretaratze hunkigarria izango da: “Ekon-en bidean egon diren adiskide askok egingo dute bat egun horretan”, diosku Juanek. Han egongo dira, besteak beste, eta azken orduko ezusterik ez badago, Iban eta Xabi taldekide ohiak, Gorka (Berri Txarrak), Sergio (Eraso!), Sorkun, Txemi eta Aner (Brutal Melody), Unai (Txapelpunk), Jousilouli, Keu (Etsaiak)... Izan ere, eurek zera diote: “Gure ibilbideko onena izan da jendea: lagundu digun jendea eta gure jarraitzaileak”. / LEIRE KORTABARRIA / 14

JONI

Eskoriatzarra da. Taldeko abeslarietako bat izan da. Aspalditik zebilen taldearekin lankidetzan, baina bere partaidetza 1999an sendotu zen.

YAGO

Aramaiarra da, eta Ekon sortu eta urte eta erdira egin zuen taldearekin bat. Gitarra jotzailea izan da Ekon-en. Amatxon heavy taldean ere jo du.

INES

Arrasatearra da eta ahotsak ipintzen zituen taldean. Hain zuzen ere, emakumezko ahotsen erabilera izan da Ekon-eko ukitu original bat.

J. SANGRE

Hasierako kideetarikoa bat da. Azken garaian abestu egiten zuen Ekon-en, baita batera jo ere. Brutal Melody taldeko kidea ere bada.

UNAI

Taldekide ohi da Unai, baina Ekon-ekin harremana ez du eten. Gerora, Txapelpunk taldea sortu zuen. Gitarra jo zuen Ekon-en.

NAIARA

Arrasatearra da, eta ahotsak ipintzen zituen. Inesekin batera, Joana aurreko abeslaria ordezkatzeko sartu zen 1999an.

IÑIGO

Mondragoetarra da, taldekide gehienak bezala. Baxu jotzailea zen Ekon-en. Beste talde baten ere jotzen zuen, Heriotzan, hain zuzen.

HELOY

Soraluzetik dator Heloy. Taldeko batera jotzailea zen. Beste talde batzuetan ere badihardu: Fly Shit eta Brutal Melody, esaterako.

FATTY

(ez dago argazkian) Mondragoetarra da eta samplerraz arduratzen zen. Mad shadows eta Necrosis taldeetan jo izan du, besteak beste.

ESTEBAN

(ez dago argazkian) Kide berrienetako bat. Aretxabaletarra da eta gitarra jotzen zuen Ekon-en. Denial eta Versus dira bere beste talde batzuk.

TALDEAK/ EKON-EN AZKEN EMANALDIA BIHAR, ZAPATUA, MONDRAGOEN

“Ziur musikan jarraituko dugula”

EKON TALDEAK AGUR ESANGO DIE JARRAITZAILEEI, EUSKAL HERRIAN BESTE MUSIKA ESTILO BAT SORTU ONDOREN

LEIRE KORTABARRIA

Musikaren alderdi gozonenak eta gazienak dastatu ditu Ekon talde debagoiendarrak bere ibilbidean. Alde gogorrenak izan dira, euren esanetan, taldekide aldaketek eragindako krisiak eta, batez ere, “musikaren negozioa” barrutik bizi behar izatea.

Ekon taldeak arrakasta handia izan zuen hasieratik. Hain zuzen ere, taldekideak eurak ezustean harrapatu zituen harrera eta salmenta kopuruak izan zituen estreinaldi diskoak, *Zurrunbilo kaotikoa* deitutakoak. Disko hark 6.000 aletik gora saldu zituen. Ekon taldearen *boom*-a taldekide gehienek herrian, Mondragoen, hasi zen eta Euskal Herri osora hedatu zen; euren jarraitzaile sutsuenak Bizkaian eta Nafarroan aurkitu dituzte.

‘EKON ESTILOA’

Ekon talde berezia izan da Euskal Herriko musika eszenan. Berezia zentzu askotan: alde batek, estilo propioa izan du, bai musikari berari dagokionez, bai eta emanaldiei begira ere: “Gure eraginetatik abiatu ginen: metal eta rock indartsutik, hain zuzen ere; rap ukitua ematen genion horri; eta orduan egiten ez ziren gauzak sartu genituen, hain zuzen ere, nesken ahotsak eta samplerrak erabiltzea”, azaltzen du Juan Sangre taldekideak.

Beti egon da *Ekon estilo* bereizgarri bat. “Metal edo rock gogorraz gain, rock industrial, soula... entzun eta Ekon-en hizkuntzara pasatzen genituen”, dioskute. Estilo hori talde berriendako inspirazio iturri izan da.

Baina, alde negatiboan, Ekon-en berezitasun bat izan da taldekide kopurua. Taldea sortu zenetik, kontaezineko kide aldaketak izan dira, horrek zekartzan zalan-



GOR DISKAK

Ekon, azken formazioarekin. Argazkian Fatty (samplerra) eta Esteban (gitarra) falta dira.



ZUZENEOAK, TALDEAREN IKUR

Ezagun egin ziren Ekon-en zuzeneko muntaiak. Euren publikoak asko gozatu izan du horiekin, eta hori positiboa izan da Ekon-endako, nahiz eta exijentzia maila altuagoa ekarri euren-dako. Jarraitzaile askok igarriko du, ziur, emanaldion falta.

tza eta krisi txikiekin. Ez hori bakarrik: “Gero eta zailagoa zen guztiok elkartzea entseatzeko, grabatzeko...”, dioskute.

Euren buruarekin “oso zorrotzak eta kritikoak” izan direla ere onartzen digute, eta hori izan da uzteko beste arrazoi bat.

“GUZTIOK JARRAITUKO DUGU”

Esperientzia txarrak ahaztu eta azken kontzertuaz gozatzeko unea iritsi da. Etorkizunerako ere asmoz beteta daude: “Musika maitte dugu eta ziur nago guztiok honetan jarraituko dugula, modu batera edo bestera”, diosku Juan Sangrek. Berak “talde esperimental bat” du abian, Etsaiak-eko Keu eta Mikel eta Iban (Baldin Bada, Su ta Gar) lagunekin batera. Era berean, Iñigo, Yago eta Fatty taldekideek “ondo pasatzeko” rock proiektu bat dute.



ZURRUNBILO KAOTIKOA

Mil a gritos • 1997

“Eraginak asko sumatzen zaizkigu. Abesti *entsalada* antzekoa, baina oso freskoa. 6.000 kopian gora saldu ziren. Izan ere, Ekon-en *boom*-a ekarri zuen”.



ETNIA 2000

Mil a gritos • 1999

“*Superdiskoa* egin nahi izan genuen. Aurrekoa baino teknikoagoa, osaketa askorekin egingakoa. Entzuteko atsegina da, baina ez zuzenerako”.



SALATZEN DUT

Gor • 2002

“Akatsotatik ikasita egindako diskoa da. Berriro ere abesti freskoak egin genituen, hasieran konposatutakoa larregi ukitu barik. Gure disko onena, osoena da; zuzenerako oso ona”.

Tarifa personalizatuak

Zatoz gure bulegoetara eta informa zaitez

- Aseguruak
- Finantzaketa
- Renting
- Balio erantsien lantegiak



Mapfre
Errekabarren 3
943 77 11 76
ARETXABALETA

Mapfre
Garibai etorbidea 16
ARRASATE
943 79 89 00
Arrasate pasealekua 37
ARRASATE
943 79 71 31

Mapfre
Simon Arrieta 3
943 76 18 80
BERGARA

Altube zerbitzuak-Mapfre
Portu 5
943 78 12 65
ONATI

MUSIKA/ RUPER ORDORIKAK DISKOA KALERATU DU

LABUR

Ruperren lan gertukoena

'KANTUOK JARTZEN DITUT' DISKOA HERENEGUN AURKEZTU ZUEN OÑATIARRAK BILBON

LEIRE KORTABARRIA

Ruper Ordorika kantautore oñatiarrak bere disko "gertukoena" aurkeztu berri du. *Kantuok jartzen ditut* du izenburua, eta herenegun aurkeztu zuen, Bilbon. Aurreko lanen bide berean sakontzen du Ordorikak. Ohiko lagun eta lankideek babestu dute oraingoan ere kantautorea.

Disko bat egin ondoren atsedean hartu eta kontzertuak eskaintzeko tarte luzea hartu ohi du Ruper Ordorikak beste lan bat kaleratu aurretik; oraingoan, ordea, tradizio horrekin zelanbait hautsi du; izan ere, *Hurrengo goizean* aurreko diskoa kaleratu zuenetik bi urte besterik ez da pasatu. Ruper Ordorikak honela azaltzen du egoera: "Abesti hauek *gainera* erori zaizkit, modu baten esatearren. Oraingo honetan, ganbara beterik aurkitu dut, eta, gaur egun gauden egoera honi nire apurtxoak ekarri behar niola iruditu zait, hau da, kantak egitea".

ASPALDIKO LAGUNEK BABESTUTA

Hurrengo goizean kaleratu zuenetik kontzertuak eskaintzeari ekin zion Ruperrek, bere talde den Mugalaris-ekin batera. Azken hilabeteotan, ordea, konposatzaile lanetan ibili da buru-belarri.

Jardun horren emaitza da disko horretan eskaintzen dizkigun hamabi abesti berriak. Ia ordu-bete irauten du diskoak. Gertuko diskoa da, hau da, ez du soinu efektu handirik; disko "musika-



Nafarroako abesti batetik dator Ruperren diskoaren izenburua.

"Nahi duena egin dezake"

Ruper Ordorikaren hamabosgarren diskoa dugu *Kantuok jartzen ditut*. Musikan guztiz finkatuta dagoen nortasunari eusten dio kantautore oñatiarrak disko berri horretan. Izan ere, hasi zenetik erakutsi izan du nortasun berezi hori; eta bere arrakastaren gakoetako bat da, seguru asko, denetarik ondo hartu duela eta bere egiten jakin izan duela. "Ahozko Europako tradizioarekin batera, erritmo oinarri sendoak; jazz sonoritate hipnotikoekin batera, denok abesteko moduko melodiak... Horregatik, *Hurrengo goizean* diskoaz zera bota genuen: behin eta haraino ailegatuta, handik aurrerantz *nahi zuena* egin zezakeela Ruperrek", dio Fermin Etxegoien adituak.

Hamabi kantu berri horiek disko biribila, heldua eta organikoa osatzen dute; orain gozatzeko aukera dugun lana.

la" da. Ruper ez da aldendu bere entzuleek hain gustuko duten estilo horretatik.

Konposaketa lanen ondoren, grabaketa etorri zen; eta hori Azkaraten egin zuten Ruper Ordorikak eta lankideek, uda partean. Jonan Ordorikak egin ditu nahasketa eta grabaketa lanak; eta honako musikariek hartu dute parte: Ben Monder (gitarra), Jonathan Maron (baxu elektrikoa), Kenny Wollesen (bateria) eta Ruperrek berak, gitarra jotzen. Ruperren estiloa eta doinu gogoak ondo ezagutzen dituzten musikariak dira: Ben Monderrek Ruperren azken lau diskoetan hartu du parte; Kenny Wollesenek, hiru bildumatan; eta Jonathan Maron berria izan arren, New Yorkeko inprobisazio giroko musikaria da, aurrekoak bezala, eta Ordorikak ondo ezagutzen du giro hori ere.

Artista gonbidatuak ere izan dira: Arkaitz Minerrek biolina jo du; Virginia de la Casak abestu egin du, eta Nando de la Casak teklatura jo du.

OSO LAN ZUZENA

Musikari batendako zaila da bere azken lanaz berba egitea eta ondo definitzea; hala ere, Ruper Ordorikak diosku *Kantuok jartzen ditut* diskoaren gainean: "Ez da giroko diskoa, baizik eta oso lan zuzena". Abestiak bere testuetan daude oinarrituta, bakarra izan ezik, Joseba Sarrionandiaren testu batean oinarritzen da. Diskoaren izenbururako ere beste nonbait aurkitu du inspirazioa: Nafarroako kantu batetik hartu du.

Juan Karlos Irizarren disko berria, kalean


LEIRE KORTABARRIA

Juan Karlos Irizar piano jotzaile eta konposatzaile oñatiarrak *Oroitzapenerako baladak* disko eta partitura liburu berriak plazaratu ditu oraintsu. Kalera-tzen duen bosgarren partitura liburu honetan hainbat estilotako euskal musikari eta taldeen abestiak batu eta moldatu ditu: Ruper Ordorika, Benito Lertxundi, Ken Zazpi, Etzakit..., besteak beste.

"Atzerriko musikariei begira egoten gara sarri, eta hementxo musikariak protagonista egitea pentsatu dut", dio Irizarrek.

LAU ABESTI BERRI

Arrasate Irratiari eskaintako elkarrizketa baten, Juan Karlos Irizarrek esan zuen "pozik" dagoela moldaketak zelan geratu diren, eta artistek eurek ere onepena eta animuak eman dizkiotela. Moldaketoz gain, diskoak Irizarrek idatzitako lau abesti berri ere eskaintzen ditu.



Juan Karlos Irizar.

Atsedena hartzeko sistemarik hoberenak

bede[®]

KOLTZOI DENDAK

- Atsedenean espezialistak
- Koltxoiak, kanapeak...
- Estalkiak, edredoi nordikoak...
- Ohe artikulatuak

Udazkena heldu da.
Funda nordiko berriak iritsi dira.

ZARUGALDE 25 • ARRASATE • Tel: 943 77 18 35

Urriak 24-31

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Hainbat ikastaro antolatu ditu Txatxilipurdik** zapatu goizetarako: azaroaren 8an, henna ikastaroa egongo da; azaroaren 15ean, automakillaje ikastaroa; eta azaroaren 22an, ile apaindegi ikastaroa (txurroak, luzapenak...). Erguingo Gazte Txokoan izango dira hirurak, 10:30etik 13:30era. Hiru euro ordaindu beharko dira. Mugaeguna azaroaren 4a da, eta leku mugatuak egongo dira.

► **Hastapen mailako jostintza ikastaroa** antolatu du Ekin Emakumeak taldeak, azaroaren 10ean, 12an eta 13an, 18:00-20:00. Jostintza lan txikiak egiten ikasteko dago pentsatuta. Izena emateko mugaeguna urriaren 31 da; horretarako, jo euren elkartera (Pablo Uranga 6, behe).

► **Gazteendako ikastaroak** antolatu ditu Gazte Bulegoak. Arratiako jota ikastaroa, irrati esataritza eta antzerki mugimendu jardunaldiak egongo dira. Izena emateko, deitu 943 77 00 65 telefonora edo idatzi honako helbidera: gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net.

BERGARA

► **Sendabelar ikastaroa** antolatu du Jardun elkarteak azaroaren 10ean, 17an eta 24an eta abenduaren 1ean. Bergarako Arrizuri jauregian izango dira eskolak, 19:30etik 21:30era. Jarduneko bazkideek 20 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 25. Izena emateko, deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefonoetara, edo idatzi kulturajardun@topagunea.com helbidera.

ESKORIATZA

► **Euskarazko Jolasen Ikastaroa** antolatu du Udalak, nagusiei zuzenduta. Azaroaren 8an, 15ean eta 22an izango dira jardunaldiak. Bi talde antolatuko dituzte: bata 0-5 urte arteko umeen guraso eta begiraleendako, eta beste bat 3-9 urtekoendako. Izena emateko mugaeguna urriaren 31 da.

► **Nagusiendako fandango eta arin-arin ikastaroa** antolatu du

Udalak, azaroaren 4tik 23ra, 19:00-20:30. Udak Pilotalekuan izango dira eskolak. Izena emateko, deitu 943 71 46 88 telefonora edo idatzi helbide honetara: euskara@eskoriatza.net. Urriaren 31 da mugaeguna. Martitzenean izango dira eskolak, astean behin, hortaz.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Labrit kantariaren emanaldia** egongo da gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 20:00etan.

ARRASATE

► **Ekon taldeak** azken kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Honako talde eta musikariak egongo dira: Shadow, Xabimetal, Jousilouli, Unai (Txapel-punk), Sorkun, Keu, Brutal melody, Sergio (Eraso!), Gorka (Berri Txarrak) eta Aitor (PiL.T.).

BERGARA

► **No Use For a Name, Bigwig eta Irish Car Bomb** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Ill niño, Spineshank eta Chimaira** taldeen emanaldia egongo da bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:30ean.

► **A Compañía Do Ruido (Galizia)** taldeak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

OÑATI

► **Pasaia Musikaleko abeslarien** eta Oñatiko Ganbara abesbatzaren emanaldia egongo da etzi, domeka, Agustindarren elizan, 13:15ean.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► **Kutsidazu bidea, Ixabel** antzezlanak egongo du Gorringo taldeak bihar, zapatua, 22:00etan.

ARRASATE

► **Ni izango naiz the number one** antzerki-monologoa egongo du Matxinek gaur, egubakoitza, Jai-Zale tabernan, 23:00etan, Kultur Errotaren barne.

► **Las punkis también lloran** antzezlanak eskainiko du Detritus Teatru taldeak datorren egubakoitzean, urriaren 31n, Emakume Txokoan, 19:00etan.

BERGARA

► **Txan magoaren emanaldia** egongo da etzi, domeka, udal pilotalekuan, 18:00etan. Txartelak 5 eurotan erosi ahal izango dituzue, 3 eurotan, umeendako.

ELORRIO

► **Nosferatu** antzezlanak eskainiko du Teatro Che y Moche taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

► **Yuri Sam. Otoitza** antzezlanak eskainiko du FTI- Antzerkiola Imaginario taldeak datorren egubakoitzean, urriak 31, Arriola aretoan, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Kont-arte** antzerki lana eskainiko du Taun Taun taldeak gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:00etan.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Elurretan leopardoaren bila** diapositiba saioa egongo dute Andoni eta Xabier Ormazabalek urriaren 30, udaletxe zaharrean, 19:30ean.

ARRASATE

► **Emakumea eta osasuna** hitzaldia egongo du Mari Luz Esteban adituak gaur, egubakoitza, Emakume Txokoan, 19:00etan.

Santakruzera (Anbotoste)

mendi irteera antolatu dute gaztetxeok. Bihar egongo dute, zapatua. Arbolapetan elkartuko dira, 09:00etan. Hamarretakoa Besaiden egongo dute. Argibideetarako, deitu Ikerri (943 79 38 99).

► **Emakumeon parte-hartzea gizar-tean** izeneko jardunaldia egongo da, Feminismo Eskolaren barne, datorren eguaztentean, hilak 29, Emakume Txokoan, 19:00etan. Arantza Urkaregik dinamizatuko du.

► **AEK Egunerako autobusak** antolatu ditu Erdi AEK euskaltegiak. Etzi izango da jaialdia, Abetxukon. Txartelak AEKn edo AEDn daude salgai.

10:15ean elkartuko dira, autobus geltokian, etzi, domeka.

BERGARA

► **San Joxepe elkartean VII.** Hamabostaldi Kulturalaren Idazlan Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egongo da gaur, egubakoitza. Segidan, Fredi magoaren emanaldia egongo da. Novedades aretoan, 19:00etan.

► **Nilo, Afrikako altxorra** ikus-entzunezko saioa egongo da datorren eguenean, hilak 30, Angel Cuerdo Galarraga bidaiariaren eskutik. Zabalotegi aretoan izango da, 19:00etan. Sarrera doan izango da.

ESKORIATZA

► **Ezkurtxo Mazmela ipuin kontari** ekitaldia egongo da bihar, zapatua, 16:00etan. Ipuin-kontaketa, diaporama, ibilaldia eta txokolate-jana egongo dira, besteak beste. Eskoriatzako Mazmela auzoan izango da.

OÑATI

► **Arabako Izki parke naturalera** irteera egongo du Aloña Mendi elkarteak etzi, domeka. Parrokia aurrealdean elkartuko dira, 08:00etan. Izena emateko azken eguna gaur duzue, egubakoitza.



► BERTSOLARITZA

GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO HURRENGO SAIOA BIHAR, OÑATIN

Gipuzkoako Bertso Txapelketa aurrera doa. Bihar, zapatua, Oñatin hasiko da bigarren fasea; hain zuzen ere, fase horretako lehen kanporaketa jokatu dute honako bertsolariak: Nerea Elustondo (Legazpi), Iban Urdangarin (Ataun), Iñigo Izagirre (Itziar), Xabier Sukia (Orío), Jokin Uranga (Azpeitia) eta Estitxu Eizagirre (Hernani). Egoitz Aizpuru oñatiarrak egongo ditu aurkezle lanak. Bestalde, Martin Aramendi, Zigor Leunda, Asier Oiarrbide eta Patxi Petrirena egongo dira epaimahaian. Ez da hau ibarrean egongo den txapelketako saio bakarra; izan ere, Eskoriatzan jokatu dute lehen finalurrekoa, azaroaren 16an.

Non: Oñatiko Santa Ana aretoan. **Noiz:** bihar, zapatua, urriak 25. **Ordua:** 17:00etan.

Txinatar jatetxea
**DRAGON
ORIENTAL**



•140 laguntzako jangela
•Aparkatzeko leku ezin hobea
- Bataioak
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Menua 5,95 €

ETXERARAKO PLATERAK
GERTATUKO DIZKIZUGU
943 71 25 00

Araba etorbidea 3
ARRASATE



Ibai Unamuno Egia
Bergara • Urriaren 16a • 4,500 Kg. Gurasoak: **Loredi Egia** (Elgoibar) eta **Jon Ander Unamuno** (Bergara). Argazkian, umea gurasoekin.




Aitzol Ugalde Beldarrain
Bergara • Urriaren 15a • 4,215 Kg. Gurasoak: **Olatz Beldarrain** (Bergara) eta **Xabier Ugalde** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan.



Oier Pescador Cid
Bergara • Urriaren 19a • 3 Kg. Gurasoak: **Josean Pescador** (Bergara) eta **Maria Angeles Cid** (Bergara). Argazkian, umea izaba Inma-rekin.



Jone Barandiaran Sánchez
Arrasate • Urriaren 18a • 3,550 Kg. Gurasoak: **Joseba Barandiaran** (Arrasate) eta **Fatima Sánchez** (Aretxabaleta). Argazkian, umea amarekin.



Mikel Garitano Iparragirre
Antzuola • Urriaren 16a • 4,090 Kg. Gurasoak: **Gorka Garitano Iparragirre** (Antzuola) eta **Miren Karmele Iparragirre** (Antzuola). Argazkian, umea amaren besoetan.



Xabier Telleria Salegi
Zestoa • Urriaren 20a • 4,350 Kg. Gurasoak: **Xabier Telleria** (Arrasate) eta **Josune Salegi** (Zestoa). Argazkian, umea amaren besoetan.

HILDAKOAK

Luisa Letona Arrieta. Arrasaten, urriaren 16an. 92 urte.
Iñaki Eguren. Bergaran, urriaren 16an. 70 urte.
Benita Benítez Carmona. Bergaran, urriaren 17an. 85 urte.
Manuel Etxaniz Altuna. Oñatin, urriaren 17an. 90 urte.
Ines Mateo Alejandro. Aretxabaletan, urriaren 17an. 90 urte.
Obdulia Ansoategi Iregi. Arrasaten, urriaren 18an. 91 urte.
Lorenzo Rojas Lirio. Arrasaten, urriaren 19an. 77 urte.
Irene Altuna Iregi. Arrasaten, urriaren 20an. 87 urte.
Aissa Dovali. Arrasaten, urriaren 20an. 25 urte.
Jesus Casado Bermejo. Oñatin, urriaren 21ean. 44 urte.
Migel Laspiur Azkarate. Arrasaten, urriaren 22an. 85 urte.



Begoña Zubia eta **Alberto Oiarzabal** eskoriatzarrek martitzenean bete zituzten 25 urte ezkontuta. 1978ko urriaren 21ean, hain zuzen ere, ezkondu ziren Eskoriatzan, Bolibar auzoko San Migel elizan. Zorionak, bikote, familiaren osoaren partetik!



Inma Barriocanal eta **Iban Rodríguez** arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira San Isidro elizan. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, zuen amamaren eta familia osoaren partetik!

ESKELA

Obdulia Ansoategi Iregi


“Oduli kosinerie”

Mondrauen hil zen 2003ko urriaren 18an, 91 urte zituela.

*Amama,
zure goxotasuna eta umorea
ez ditugu behinbe ahaztuko.*



Seme-alaba eta bilobak



Monika Montero eta **Mikel Loiti** arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ezkon bidaian, Vietnamera joango dira. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, familiaren, lagunuen eta lankideen partetik!



Rafa Jaso bergararrak eta **Nagore Altzela** arrasatearrak urtebete beteko dute ezkontuta domekan, hilak 26. Zorionak, bikote, eta urte askotarako, gurasoen eta lagunuen partetik!

URTEURRENA

Jesus Maria Gaztelu Alberdi

“Pisto”

Bigarren urteurreneko meza domekan, urriaren 26an, 10:30ean, **Uberako** Paulo deunaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zuretik eskerrik asko seme Josu,
Arantza eta lagunuen izenean.*

URTEURRENA

Kontxi Arizabaleta Viteri

Lehen urteurreneko meza astelehenean, urriaren 27an, 19:00etan, **Arrasateko** San Frantzisko elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Iñaki Eguren Azkorbebeitia

*Candi Zornoza*ren alarguna

Benidormen hil zen 2003ko urriaren 16an, 70 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Adelaida García Tajadura

Bergaran hil zen 2003ko urriaren 15ean, 93 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eta Mizpirualde egoitzakoei,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Jabi Larrañaga Barrena

Bergaran hil zen 2003ko urriaren 15ean, 46 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Maria Zubia Barrutiabengoa

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 26an, 12:00etan, **Arrasateko** San Frantzisko elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

PROGRAMA

SUPER⁵⁵

2003ko UDAZKENA

EUSKADIKO KUTXA

2.000 puntuo
50 lote

Paradoreetan
gaua emateko
50 bonu

Zozketa

Super 55 puntuak opari bihurtzeko garaia heldu da berriro ere. Urriaren 15etik 31ra bitartean zatoz Euskadiko Kutxara edo deitu Super 55 telefonora (900 555 900) zure oparia eskatzeko.

Dagoeneko 250.000 Super 55 gara! Eta ospatzeko, 2.000 puntuo 50 lote eta Paradoreetan gaua emateko 50 bonu banatuko ditugu programako kideen artean. Ez utzi aukera hau pasatzen; izan ere, puntuak trukatzegatik bakarrik automatikoki zozketa bikain horretan hartuko duzu parte (datorren azaroaren 14an izango da).

Aukeratu oparia eta gozatu Euskadiko Kutxaren Super 55 puntuen programak ematen dizkizun abantailez.

txangoak

ihes egiteko
30 euro baino ez!

Anima zaitetz egun ezberdina igarotzera, hurbileko lekuak deskubrituz. Harrituta geratuko zara paraje horietako kultur aberastasunarekin eta naturarekin. Egundateko txangoak proposatzen dizkizugu, **30 Euro*** bakarrik ordainduta (dirulaguntzarekin). Orenaz gozatzea gutxiago ordainduta!

• IPARRALDEKO KOSTALDEA

IRTEERAK: urriak 24 – Donostia
urriak 27 – Bilbo
urriak 29 – Gasteiz
urriak 31 – Iruñea

Prezioak barne hartzen ditu: luxuzko autobusa, Donibane Lohitzune, Biarriz eta Hondarribiko bisita gidatuak, bazkaria eta gidari laguntzailea.

• ERRIOXA ARABARRA

IRTEERAK azaroak 14 – Donostia
azaroak 17 – Bilbo
azaroak 19 – Gasteiz
azaroak 21 – Iruñea

Prezioak barne hartzen ditu: luxuzko autobusa, Laguardiako bisita, ardo-kartadun ardandegia, bazkaria eta gidari laguntzailea.

• SANTILLANA DEL MAR

IRTEERAK abenduak 21 – Donostia
abenduak 16 – Bilbo
abenduak 17 – Gasteiz
abenduak 19 – Iruñea

Prezioak barne hartzen ditu: luxuzko autobusa, Altamirako leizeetako bisita, bazkaria eta gidari laguntzailea.

* Prezio hau gutxienez 200 puntuo saldoa duten edo nomina edo pentsioa Super 55 libretan helbideratuta duten bezeroentzat da. Gainerako kasuetan prezioak ez du dirulaguntzarik jasoko eta 45 euro ordaindu beharko da. Erreserba urriaren 20tik aurrera.

BIDAI ESKAINTZA

Aprobetxatu udazkena bidaiatzeko! Super 55 programaren bidez prezio merkeagoak lor ditzakezu, berme eta erosotasun osoarekin, gainera.

■ ITALIA (Venezia, Florentzia eta Erroma) Hegazkinez Bilbotik

8 egun/7 gau – 4 eta 3 *eko hotelak, ibilbidearen arabera. Ostaturia, gosaria eta lau bazkari (ibilbidearen arabera). Programaturiko bisitak eta aukerako txangoak. Helmugan bertan ordaintzekoa.

IRTEERAK ETA PERTSONA BAKOITZEKO PREZIOA LOGELA BIKOITZEAN

Azaroak 16	880 € + aireportu- tasak (20 € ggb)
Abenduak 14	
Urtarrilak 25	

Aireportutik hotelera eta hoteletik aireporturako garraioa barne. Eskaintza: 30 egun lehenago erreserbatzen baduzu, %5eko deskontua egingo dizute.

■ KANARIA HANDIA Hegazkinez Bilbotik

8 egun / 7 gau – 3*eko hotela / Pentsio osoa
IRTEERAK ETA PERTSONA BAKOITZEKO PREZIOA LOGELA BIKOITZEAN

Azaroak 13	477 € + aireportu- tasak (18 € ggb)
Abenduak 11	

Urtarrilak 15	536 € + aireportu- tasak (18 € ggb)
---------------	--

Aireportutik hotelera eta hoteletik aireporturako garraioa barne.

Eskaintza: 30 egun lehenago erreserbatzen baduzu, %5eko deskontua egingo dizute.

■ BENIDORM Pentsio osoa

15 egun/14 gau – 2 eta 3*eko hotela
Pentsio osoa, jatorduetako ura eta ardoa barne. Garraioa ez da sartzen (aparte sartzeko aukera)

IRTEERAK ETA PERTSONA BAKOITZEKO PREZIOA LOGELA BIKOITZEAN

	2*eko hotela	3*eko hotela
Azaroak 1	288 €	345 €
Azaroak 15		
Abenduak 29	255 €	313 €
Urtarrilak 10	250 €	306 €
Urtarrilak 24		

**Eskaintza berezia: %10eko deskontua gutxienez helduera-eguna baino 45 egun lehenago erreserbatuz gero, zenbateko osoaren %50 ordainduz.

Antolamendu teknikoa: CIE 618

Eta gainera, TENERIFEREN HEGOALDEA ETA BAINUETXEAK (FITERO ETA ARNEDILLO)



Kontratatu bidaiak, eroso-
eroso, 900 555 900
telefonora deituta

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Alferrak		Haurtzaroan		Trebea, gaitua
	* Izena		Bientzako txirringak		
	Materia				
	1000				
* Deitura	Era mingarriz				
Ingeleser, handia	Armada				
			Agur		
			Jaietako lehergailuak		
Puska txikia					
Era					
			Mamiaren hasieran		Euritako
			Taxu, molde		
Fereka, txera					
Iruzurak					
				Tona	
				Potasioa	
Hartu			Suari dari- na		
Animalia harrituak			Bihi, garau		
				Roentgen	
				Ez eme	
Zareten horiek	Oholak				
	Uranioa				
			Gaixo		

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

SOLDADUTZAN DIRU BARIK
Petit Patxoa, eibartar xelebría, soldau zeguan Galizian. Bere kartetan beti diru eske zeguan etxekuei. Aitxak, aspertuta, idatzi zetsan:

- Geixago ezeik eskribidu etxera diru eske.

Ia sei illebetian ez zeban idatzi semiak. Beñ, baiña, sobre aundi baten, bialdu zeban fotografia bat. Ara zelan agertzen zan: etzinda, zapaten zuelak zulatuta erakusten, fraka eta txaketa-ko poltsikuak buelta emon-

da. Eta fotografia azpitan au jartzen zeban: *Este es vuestro hijo Ramon.*

IÑOK NAI EZTABENA

Alkartu da eibartar bat plentxiar batekin. Zeozer esan bihar eta esatetsa *Ciudad ejemplar*-ekuak:

- Zelan zabizie Plaentxiar? Ze bizimodu daukazu?

- Bizimodua? Gaizki, mutil! Ara zertara eldu garen: iñork sekulan nai izan eztabena be —biarra—, axe be etxakou oiñ.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zer proportziotan erabiltzen da euskara eta gaztelania Debagoieneko etxeetan?

Familia batean gehienak euskaldunak izatea ez da askotan nahikoa izaten euskaraz egiteko. Ikerketek erakusten dute familian denek edo ia denek jakin behar dutela euskaraz euskara izateko hizkuntza nagusia. Hauxe, bada, galdera: Zer proportziotan erabiltzen da euskara Debagoieneko etxeetan?

- Euskara, %49; gaztelania, %31; biak, %20.
- Euskara, %39; gaztelania, %43; biak, %18.
- Euskara, %53; gaztelania, %28; biak, %19.
- Euskara, %43; gaztelania, %39; biak, %18.

teko hizkuntzaren bat erabiltzen dutenak.
kontuan hartu ez baditugu ere, %0,6 dira euskara eta gaztelaniaz apar-
Erantzun zuzena: Euskara, %39; gaztelania, %43; biak, %18. Hemen

SOLUZIOAK



Z	U	E	K	■	R	E	I
■	■	■	■	■	■	■	■
K	L	A	U	A	T	■	■
R	■	A	L	S	I	O	F
E	K	■	R	I	O	R	■
T	■	K	A	R	I	R	Z
A	N	A	Z	L	A	■	■
■	A	M	■	U	D	O	M
A	V	A	T	P	S	K	■
O	I	A	D	■	G	I	B
I	K	N	I	M	■	H	■
A	A	I	G	■	A	I	■
I	X	A	P	A	I	■	■
■	■	N	■	■	■	■	■

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Itsas bidaia bat egiteko aukera izango duzu. Bada, aprobetxa ezazu erlaxatzeko, disfrutatze eta bitaminak hartzeko; izan ere, osasun arazoren bat izan dezakezu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Lanean aldaketak egin gura dituzu, orain dituzun baldintzekin ez zaude-eta batere ados. Edozelan ere, ez da une egokia aldaketek egiteko.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Bikotekidearekin aspertu egiten zara, bai ohean bai bestelakoan ere. Hori dela eta, emozio bizien bila irtengo zara, eta baliteke lagun on baten bikotekidearekin oheratzeko aukera izatea.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Nahasmena izango duzu bizitzako alderdi guztietan, zer gura duzun ez dakizulako. Hausnartzeko unea da, zenbait gauza aldatzeko.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Oraingo astean hasiko dituzun proiektu guztiak ondo irtengo zaizkizu. Egin dituzun esfortzuen fruituak jasoko dituzu. Baina argi ibili eta ez lorik hartu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Eztabaida biziak izango dituzu anai-arrebeekin, arazo familiarak konpontzeko moduan egongo diren desadostasunengatik. Argi ibili zer esaten duzun eta zelan esaten duzun.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Familiarteko kide batzuen arteko liskarretan sartu beharko duzu, arazoak konpontzeko ahaleginean eta oso emaitza onak lortuko dituzu.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Lan proiektuek ez dute aurrera egin, kolaboratzaileen eta nagusien oposizioengatik. Izan ere, haiek hainbat hutsune ikusi dituzte zure proiektuetan.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Etxearekin lotutako ezusteko baten ondorioz gastu estra bat izango duzu. Horrez gain, Ogasunak atzeratutako ordainketa batzuen gaineko azalpenak eskatuko dizkizu. Ondorioz, zure aurrekontuak astindu handia jasoko du.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Txunditu eta harritu egingo zaituen pertsona bat ezagutuko duzu eta maitemindu egingo zara. Horrez gain, hainbat proiektu interesgarri hasiko dituzu. Azkenik, zain ezazu eztabidea.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Bidaia bat egiteko aukera izango duzu, eta oso aberasgarria izango da, askotariko jendea ezagutuko duzu-eta. Lan proiektuak nabarmen hobetuko dira.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Bikotekidearekin eztabaida bizi izango duzu, eta lagunekin era ez zara batere aldarde onean ibiliko. Ingurukoen aholkuei kasu egiezu.

**GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA**



'Iluntzean'
ZAPATUA 25 ETA DOMEKA 26 / 16:30



'Mandio'
MARTITZENA 28 / 20:30



'Lanabesak'
MARTITZENA 28 / 21:15



'Soinuz Blai'
EGUBAKOITZA 31 / 21:15

'Bertatik bertara'-ko Estitxu Fernandez geurean

Aintzane Gardoki eguenean Estitxu Fernandezekin izan zen aurrez aurre. Gaur egun Estitxu dugu ETB-ko aurkezle ezagunenetakoa. Aukera polita, hortaz, eguenean ikusi izan ez zenuenondako.

'Mandio': Ikurrinaren legeztatze prozesua

Aski ezaguna da guztiondako Ikurrina. Legeztatze prozesua ez zen, baina, samurra izan. Bergarako Alkate Taldeak egindako lana funtsezkoa izan zen lorpen hartan. Orduko alkateek prozesuaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Milanoko makina-erreminta azokan ibarreko enpresak

Debagoieneko lau enpresa ari dira parte hartzen oraingo astean Milanoko makina-erreminta azokan. Hori dela eta, martitzenean EMO azokan esku hartu duten enpresen gaineko erreportajea eskainiko dizuegu.

Bideoklip zaharrak ikusteko aukera egubakoitz honetan

Maitte Albesez aurkeztuta *Soinuz blai* saio bereziak eskainiko dizkizuegu. 80ko eta 90eko hamarkadetako bideoklipak artxibotik aterako ditugu. Gogoratu saio bereziak hileko azken egubakoitzetan izango direla.

TELEBERRIAK

Gorritiberearen saioa hasi da

Martitzenean ekin zion ikasturte berriari Alberto Gorritiberearen saioak GOITBn. Izena aldatu egin diote saioari. Orain deitzen da *Goienan, herriz herri*. Baina funtsean lehengo *Herrilan* saioaren ildo beretik segitzen du. Aramaio izan zuen aztergai martitzeneko saioan. Ikusi ez zenutenok asteburuan duzue aukera.

Sobera, Lozanoren aurretik EAEn

ETB2ko *La gran evasión* saioak TVE1eko *Operación Triunfo*-k baino ikusle gehiago izan zituen astelehenean Euskal Autonomia Erkidegoan: 5.000 ikusle gehiago, hain justu ere. Astelehen gaueko saio ikusiena, hala ere, T5ko *CSI* izan zen, beste behin.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Urriaren 24tik urriaren 30era



EGUBAKOITZA 24	ZAPATUA 25	DOMEKA 26	ASTELEHENA 27	MARTITZENA 28	EGUAZTENA 29	EGUENA 30
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan herriz-herri: Aramaio 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan herriz-herri: Aramaio 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Mandio 14:30 Berriak 15:00 Lanabesak 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera			19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Mandio 21:00 Gaurkoak 21:15 Lanabesak 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Mandio 23:00 Gaurkoak 23:15 Lanabesak 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
20:30 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Goienan, herriz-herri	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



RENAULT SERVICIOS

carrocería rápida

Kolpe txikiak eta urradurak, pitzadurak kristaletan, faretan, atzerako ispiluetan... Sentitzen dugu hizkuntza hau erabili behar izatea, zure automobilak izaten duen kalte bakoitzarekin zer sentitzen duzun badakigu-eta. Horregatik, **carrocería rápida** 24 ordu baino lehenago konponduko ditu, hitzordua eskatu barik, idatziz eta konpromiso barik. Eta hori horrela ez bada, ordezeko automobil bat doan. Informazio zabalagoa behar baduzu, deitu 943 712 472 telefonora.

Renault Servicios.
Geldi egon ez zaitezen mugitzen gara.

Badakigu horrek min ematen dizula, eta horregatik 24 ordu baino lehenago konponduko dizugu.

RENAULT
recomienda eif

RENAULT Kontzesionarioa

AUTOBERRI

San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472

ARRASATE



**Haur,
emakume eta
haurdunaldirako
arropak**



**UNITED COLORS
OF BENETTON.**

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78

**ZAPATU ARRATSALDEETAN
ETA ASTELEHEN GOIZETAN
ZABALIK**



Atzeskua

LEIRE KORTABARRIA

Amaia Txintxurreta/ Lauargi taldeko kidea

Txikitandik izan dituzun bi zaletasun handiak, musika eta telebista, bat egitea lortu duzu.

Bai. Asko gustatzen zitzaidan abestea, dantza egitea. Telebistako *Lluvia de estrellas* saioa oso gustuko nuen. *Betimu* saioan parte hartzeko aukera etorri zitzaidanean, probatzeagatik ez nuela ezer galtzeko pentsatu nuen. Gero, *casting*-a antolatuta zutenean ere, animatu egin nintzen, baina inondik ere ez nuen espero aukeratuko nindutela.

Betizu-n ibili zinen denbora batez, musikari akademia baten...

Tira, hirugarren irteko bozkatu ninduten... Baina pozik ibili nintzen.

...baina Lauargi taldea esperientzia horri esker sortu zenuten, ezta?

Hala da. Saioa bukatu orduko, parte-hartzaile guztiok ezagutzen genuen elkar. Horietako bat Xabi Vallina arrasatearra zen. Esan zigun bazekiela nork eman ziezagukeen aukeraren bat musikan. Ados jarri ginen, gurasooi ondo iruditu zitzaie,

eta, hala, aurrera egitea erabaki genuen.

Oñatin eman duzue orain arteko kontzertu bakarra. Zelakoa izan zen estreinaldia herrian egitea?

Oso berezia izan zen. Kontzertu aurretik banuen kezka, jendea etorriko ote zen edo ez, gustatuko ote zitzaie... Baina gero ikusten hasi ginen umeak etortzen zebiltzala, eta agertokira igotzeko ordua etorri zenean, ilusio eta gogo izugarri izo nintzen, eta geneukan guztia eman genuen. Oso polita izan zen ikustea umeak eta gurasoak ere gustura zeudela guri begira. Agertokia beste mundu bat da niretako; nire helburua da jendea pozik ikustea, animatzea.

Eta noizko izango ditugu beste agertoki baten Lauargiko argiak?

Ez dakigu noiz egongo garen emanaldi gehiago egiteko moduan... Orain telebistan gaude berriro,

eta maketa bat grabatu gura dugu abenduan-edo. Hortaz, zuzeneko datarren udan egiten saiatuko gara, orduan ikasketetatik oporretan egongo gara-eta. Asmo asko ditugu: adibidez, esan ziguten Durangoko azokarako disko bat grabatzeko aukera izan genezakeela, baita musikal bat ere!

ETBko Show Bete saioan zabilta orain; Lauargirekin proiektuak dituzu... Zelan bateratzen duzu hori ikasketekin?

Ondo nabil. Norbera antolatu behar da, noiz ikasi eta noiz entseatu jakiteko. Gurasoek asko laguntzen digute, eta euren iritzia ere ematen digute. Ahal duten guztia egiten ari dira gure alde.

Eta etorkizunean musikan ikusten duzu zeure burua?

Bai, baina zaletasun moduan; hortik bizi izatea oso zail ikusten dut.



“Agertokia beste mundu bat da niretako: han nagoenean, nire helburua da jendea pozik ikustea, animatzea...”

“Abenduan maketa bat grabatzeko asmoa dugu Lauargi taldekook”

“Oso gustuko dut musika, baina zaila da etorkizunean honetatik bizi ahal izatea”

► Oñati / 15 urte / Abeslaria

PIPERRAUTSA

Eraso

Atal bat gehiago gauzatu da Espainiako agintarien estrategian, eta atxilotu dituzte euskalgintza-ko hainbat enpresaren ordezkariak. Erantzuna ere etorri da, gehienbat Donostiako manifestazio handiarekin. Adierazpenen liturgia bete da, indar politiko eta sozialek ohi bezala esan dute batasuna dela bide bakarra. Nik nahi nuke urrats bat aurrerago joan.

Egia da oraingoan euskalgintza eraso dutela. Baina haien estrategian ez da euskalgintza jomuga bakarra, sektore asko ari dira kolpatzen, ezberdinak, ez beti euskaltzaleak. Zergatik erantzun euskalgintzatik bakarrik? Zergatik eskatu elkartasuna adierazi nahi duenari aldarrika dezala *Gora Euskal Herria euskalduna?*

Eztaba dabil, gorria, eta nik neure iritzia emango dut. Zinez uste dut eragingarriago dela erantzun zabala erantzun mardula baino. Espainia gehiago kezkatuko du milioi bat euskaldunen adostasun oinarritzakoak, ehun mila euskaldunen haserre baina. Eta geu ere animatu egingo gintuzke jakiteak asko gaudela prest keinu txiki bat egiteko.

Oraingo honetan, zergatik ez nabarmendu espainiar justiziaren morrontza agintarieko? Nola azaldu ez dugula onartzen justizia bortxatzea? Zenbatek adieraziko luke, kalean edo sinadura bidez, justizia propioa hobesten duela?

Bide batez, eskatu zaio hemen ibili den Nazio Batuetako entzuleari jarrai ditzala atxilotetak?

MIKEL IRIZAR

Hiru jangela
Menua eta karta

Lagun eta familiarako ospakizunak
Bataioak, jaunartzeak eta ezkontzak

Hiru jangela : 14, 30 eta 180 lagunendako

Debagoienetik oso gertu!

Arrazola – Atxondo
Tel.: 94 658 29 31

